	• ACOPET programa eta indarkeriaren biktima diren emakumeen langabezia sorospena • Haurrekiko jokabide desegokiak identifikatzea eta prebenitzea • Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko koordinazioa optimizatzea. 1. saioa • Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko koordinazioa optimizatzea. 2. saioa • Haurren kontrako sexu abusuei buruzko tailerra • Indarkeriari, desinformazioari eta emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko sinposioa • Funtzio publikorako genero berdintasunerako ikastaro aurreratua • Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeria: arreta irisgarri eta inklusiborantz aurrera eginez • Sexu adostasuna eraikitzea • Familia krisiak eta lehen laguntza psikologikoak • Genero ikuspegia duen justiziari buruzko jardunaldiak • Genero indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoari buruzko XXV. jardunaldia • Sexu indarkeria digitalari buruzko II. jardunaldiak • Aniztasunaren balio soziala: emakumea eta desgaitasuna • Genero indarkeria eta adingabeak: esparrua, printzipioak eta esku-hartzea. (Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko Lege Organikoa) • Erantzun feminista sexu indarkeriaren aurrean • Hezkidetzari buruzko XX. Intercambia topaketa • Afrikarren eta afrikar ondorengoek jasaten duten indarkeria matxista prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko Europako biltzarra • Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako XIV. nazioarteko jardunaldiak • Genero indarkeriaren aurkako I. eskualdeko biltzarra: prebentzioa, esku-hartzea eta leheneratzea • Sexu esplotaziorako sistemen azken aldaketak • Indarkeria bikarioa • VioGen 2 • Giza salerosketara eta sexu esplotaziora erakartzeko modu berriak • Nesken eta mutilen artean zabaltzen ari diren amildegiak: berdintasuna eta feminismoari buruzko iritziak
--	---

	• CUVI • Genero indarkeria errotik ezabatzeko landa eremuko emakumeen hobekuntza proposamena • Landa eremuko emakumeak eta osasuna
Emakumeen kontrako indarkeriari buruz emandako prestakuntza	UNITATEAK ANTOLATU ETA EMANDAKO JARDUERAK • Puntu moreei buruzko 5 sentsibilizazio hitzaldi/10 ordu/Administrazio publikoak eta elkarteak/80 partaide. • Talde zaurgarrietako emakumeak eta genero indarkeria/2 ordu/publiko orokorra /20 partaide: 19 emakume eta gizon bat. • Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko mintegia/3 ordu/Itxaropen Telefonoko kideak/49 partaide: 32 emakume eta 15 gizon UNITATEAK ANTOLATU ETA EMANDAKO JARDUERAK: 3, guztira 15 prestakuntza ordu eta 149 partaide. UNITATEAK ANTOLATUTAKO JARDUERAK • Errespetuzko komunikazioa indarkeriazko komunikazioaren aurrean: erlazioa zaindu eta mugak jartzen jakitea/5 ordu/segurtasun indar eta kidegoetako agenteak/50 partaide: 32 gizon eta 18 emakume. • “Haurren kontrako sexu abusuaren (HSA) susmoa dagoenean detektatzea eta jakinaraztea” /5 ordu/adingabeekin kontaktua duten profesionalak /91 partaide: 23 gizon eta 68 emakume • Emakumeek eremu digitalean jasaten duten sexu indarkeria/3 ordu/Hondarribiko udalekuetako begiraleak/77 partaide: 24 gizon eta 53 emakume • VioGen-2 sistemaren bidez poliziak kasuen arrisku maila eta jarraipena baloratzeko eta kudeatzeko protokolo berria/

	5 ordu/segurtasun indar eta kidegoetako agenteak/90 partaide: 33 emakume eta 72 gizon • Pornografiaren kontsumoak adingabeengan eta gazteengan dituen ondorioak/4 ordu/Hezkuntzako langileak/51 partaide: 9 gizon eta 42 emakume • Estresa prebenitu eta kudeatzeko “Gestres” online ikastaroa /7 ordu/ segurtasun indar eta kidegoetako agenteak/60 partaide: 43 gizon eta 17 emakume • Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko VIII. urteko jardunaldia/6 ordu/biktimekin lan egiten duten profesionalak/91 partaide bertaratu ziren: 18 gizon eta 73 emakume eta beste 180 partaide internetez UNITATEAK ANTOLATUTAKO JARDUERAK: 7, guztira 35 prestakuntza ordu eta 690 partaide UNITATEAK EMANDAKO JARDUERAK • Estatuko administrazio orokorrak atzeritar jatorriko genero indarkeriaren biktimek dituen baliabideei buruzko mahai ingurua, afrikarren eta afrikar ondorengoek jasaten duten indarkeria matxista prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko Europako biltzarraren baitan/2 ordu/50 partaide • “Guraso bakarreko familientzat benetako berdintasuna bermatzea” hitzaldia, “Eskubide formalak eta errealak. Berdintasunerako bideak” IX. amabakarren jardunaldietan, AMILIPSek antolatuta/Ordubete/15 partaide • <i>Atelier d’échange sur la sensibilisation</i> delakoaren baitan “Puntu moreei” buruzko online hitzaldia, frantsesez, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak antolatuta/Ordubete/50 partaide • “Koordinazio unitateak betetzen dituen funtzioak eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan dauden baliabideak” hitzaldia, Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzak antolatutako “administrazio irekiaren astearen” baitan/Ordubete/40 partaide
--	--

	• “Koordinazio eta indarkeria unitateen jardunbide egokiak” hitzaldia, Gobernuaren ordezkarietzako emakumeen kontrako indarkeriaren arloko koordinazio unitateen eta Gobernuaren ordezkariordetzetako emakumeen kontrako indarkeriaren arloko unitateen urteroko topaketan/Ordubete/100 partaide UNITATEAK EMANDAKO JARDUERAK: 5, guztira 6 prestakuntza ordu eta 255 partaide IKASTETXEETAN ETA HAIEN INGURUETAN BIZIKIDETZARAKO ETA SEGURTASUNA HOBETZEKO PLAN GIDARIAREN BARRUAN UNITATEAK EMAN DITUEN JARDUERAK • 118 tailer eta hitzaldi Nafarroako 7 herritako 19 ikastetxetan, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduak. 3005 ikaslek hartu zuten parte, eta gai hauek jorratu ziren: mikromatxismoak, maitasun erromantikoaren mitoak, bikote harreman osasuntsuak eta pornografiak nerabeengan dituen eraginak.
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	• Puntu moreak ezartzera bideratutako prestakuntzak nabarmen ugartu dira, eta horrek emakumeen kontrako indarkeriari buruzko sentsibilizazio handia dakar. • Genero indarkeriaren aurkako gobernu ordezkariaren bidez prestakuntza gehiago eskaini zaizkie unitateei, barne komunikazioa hobetu da, eta Estatuko baliabideei buruzko informazioa eta datuak eskuratzea errazagoa da.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Polizia kidegoek VioGen 2 erabiltzeko prestakuntza gehiago behar dute • Puntu moreen ardura duten pertsonen sentsibilizazio eta prestakuntza etengabea behar da, puntu moreak egonkorrak edo herriko jaiengatik izan • Donejakue bideko aterpetxeetan lan egiten duten eta emakume erromesak artatzen dituzten pertsonen prestakuntza behar dute, indarkeria egoerak hautemateko eta prebenitzeko.

	Nafarroako toki entitateek genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsen xede egokiari buruzko prestakuntza behar dute.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	- Lantalde espezifikoak - Genero indarkeriaren aurkako koordinazio batzordea Nafarroako Probintzia Auzitegian; - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktimak babesteko esparru protokoloaren jarraipen batzordea - Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan koordinatzeko zazpi tokiko koordinazio mahairen bilerak sei hilean behin - Koordinazio bilerak genero indarkeriaren arloan eskumena duten segurtasun indar eta kidegoekin eta VioGenera atxikitako udaltzaingoekin - Estatuko Krisi Batzordearen eta kasu hilgarrien mahaiaren bilerak
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	- Barne Ministerioaren eta Nafarroako udalen arteko sei lankidetza hitzarmen berritzea, udaltzaingoak “genero indarkeria kasuen jarraipen integralerako sisteman (VioGenen)” sartzeko. - Bi udal berri sartu dira “genero indarkeria kasuen jarraipen integralerako sisteman (VioGenen)”. - Poliziaren zazpi lankidetza protokolo berritu dira VioGen 2ra atxikitako Nafarroako udalekin. - Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko tokiko koordinazio protokolo eta tokiko koordinazio mahai gehiago egin direla. - Puntu moreak ezarri dira Nafarroako hainbat administrazio publiko zein erakundetan: 15 EAO eta 2 beste erakunde batzuetan.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Unitateak ez du gonbidapenik luzatu populazio eragin handiko koordinazio mahai lokal batzuetan parte hartzeko: Iruña edo Tuterak. - Nafarroako toki entitateekiko koordinazioa hobetzea, genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsak zertarako erabiltzen diren jakiteko eta zuzenketak saihesteko. - Unitatearen eta Nafarroako Gobernu departamentu batzuen arteko koordinazioa hobetu behar da, kolektibo batzuei (irakasleei, adibidez) zuzendutako prestakuntza jarduerak egiteko.

**INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025**

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
EMAKUMEEI LAGUNTZEKO IRUÑEKO UDALEKO ARRETA ZERBITZUA (ELUZ)	
Partaide kopurua, sexuaren eta lan profilaren arabera: Gizarte-langileak (emakumezkoak): 2 (lanaldi osoan) Psikologoak (emakumezkoak): 2 (lanaldi osoan) Abokatuak (emakumezkoak): 2 (bakoitzak 5 ordu astean) Administraria (emakumezkoa): 1 (lanaldi osoan) Azken urteko aldaketa: - Igoera: 2025eko martxoan emakumezko psikologo bat hasi zen lanean, lanaldi osoan. - Murrizketa - Aldaketarik ez	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak EZ - Beste erakunde batzuen zabaldutako kanpainak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez - A25 kanpaina ☒Bai ☐Ez - Jaiak ☒Bai ☐Ez - Giza salerosketaren aurkako eguna ☒Bai ☐Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Beste batzuk ☒Bai ☐Ez
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐Bai ☒Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	

TOKI ENTITATEAK

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Erroibar, Artzibar, Garralda, Orbaitzeta, Orbara, Aribere, Hiriberri, Garaioa, Abaurrepea, Abaurregaina eta Ariako udalak	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☒ Bai ☐ Ez Gaia: - Urriaren 15a, Landa eremuko emakumeen eguna - Pirinioetako jaietan indarkeria matxistak prebenitzeko kanpaina (Pirinioetako bi berdintasun arloek egina)
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☒ Bai ☐ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea 1. Erroibarko eta Hiriberriko Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren diagnostikoa eguneratu da 2. Artzibar eta Orotz-Beteluko Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren I. diagnostikoa egin da - Ikergaia

	2025ean, Aezkoako bederatzi udalerrietako eta Erroibarko Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren diagnostikoa eguneratu da, berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko politika publikoak planifikatzeko informazio eguneratua izateko. Era berean, 2025ean lehen aldiz egin da Artzibar eta Orotz-Beteluko Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren diagnostikoa. Horri esker, lurralde horietako egoeraren azterketa espezifikoa egin ahal izan da lehen aldiz, eta, hala, prebentzio-, sentsibilizazio- eta koordinazio-neurriak gehitu ahal izan dira. Diagnostikoetan informazio kualitatiboa biltzen da, dauden baliabideak aztertzen dira, beharrak detektatzen dira eta landa eremuan jarduteko proposamenak egiten dira.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	• Aezkoako bederatzi udalerrietako eta Erroibarko Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren diagnostikoa eguneratu da. • Artzibar eta Orotz-Beteluko diagnostikoa egin da lehen aldiz. • Lurraldearen errealitatea hobeki ezagutu dugu, eta hala jarduerak hobeki planifikatzen ahal dira. • Landa eremuko sentsibilizazio kanpainak indartu dira. • Jaietan eraso matxistak prebenitzeko Pirinioetako kanpaina bateratua egin da.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Zaila da udalerrri txiki eta sakabanatuetan datuak biltzea, baliabide tekniko, giza baliabide eta baliabide ekonomikoen mugak direla-eta. • Landa eremuko emakumeen kontrako indarkeriaren analisisian sakontzen jarraitu behar da. • Diagnostiko eguneratuak behar dira, esku-hartze publikoa bideratzeko.

II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	○ Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago aholkularitza psikologikorik? ☐ Bai ☒ Ez Gizarte zerbitzuen, Nafarroako Gobernuaren eta beste baliabide espezializatu batzuetako baliabideei ematen zaie arreta espezializatua, txosten honetan sartutako toki erakundeak landa eremuko udalerri txikiak baitira, zerbitzu propio iraunkorrik ez dutenak.
Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Sinadura data: ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☐ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☐ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☒ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez Auñamendiko gizarte zerbitzuen mankomunitatearen koordinazio protokoloa 2025eko ekainean iraungi zen; Erroibar, Garralda, Orbaitzeta, Orbara, Aribe, Hiriberri, Garaioa, Abaurreapea, Abaurregaina eta Ariako udalak zeuden hari atxikita. Gaur-gaurkoz, koordinazio protokolo berri bat egiten ari gara, eta udaleko berdintasun arlotik idazten den lehena da, soilik berdintasun teknikaria duten aipatutako udalentsat (ez Auñamendi osoarentzat), 14/2015 Foru Legera, Erakunde arteko III.akordiora eta lurraldearen egungo errealitatera egokitzeko asmoz. Artzibar eta Orotz-Betelu udalerriak ez zeuden protokolo horretan sartuta, Itzagako gizarte zerbitzuen mankomunitatekoak baitira eta horrek emakumeen kontrako indarkeriaren arloan koordinazio protokolo propioa baitu. Protokolo bakoitza bere koordinazio mahaian lantzen da; beraz, lanbide arteko bi koordinazio mahai daude lurraldean.

Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	- Aurreko protokoloa iraungi zenez, beste koordinazio protokolo bat egiten hasi gara. - Lehen aldiz, berdintasun teknikariak lurraldeko protokolo berriaren ardura hartu du. - Pirinioetako landa-udalerrien arteko koordinazioa hobetu da. - Esku-hartzeak landa ingurunera egokitzen jarraitu dugu.																		
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Lurraldean bertan baliabide espezializaturik ez izatea. - Sakabanatze geografikoak koordinazioa zailtzen du. - Jaietarako eta aisialdi gunetarako protokolo espezifikoak behar da. - Gizarte zerbitzuen mankomunitateen eta berdintasun arloaren artean desberdintasunak daude antolaketan eta egituran. - Landa ingurunean egoera bereziki zaugarrian dauden emakumeentzako arreta indartu behar da.																		
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA																			
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua: Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza, lanbide arteko koordinazioa, kasuen ikuskapena eta protokoloa inplementatzea, koordinazio mahaiko teknikariekin batera. Iraupena, guztira: 9 ordu; 3 orduko 3 saio.																		
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera IZENBURUA: Emakumeen kontrako indarkeria: araudia, laguntza baliabideak eta Añamendiko mankomunitateko emakumeen kontrako indarkeriaren tokiko protokoloa inplementatzea. Iraupena: 3 orduko 2 saio. Parte hartzea: <table><tr><th colspan="3">1. Sesión</th><th colspan="3">2. Sesión</th></tr><tr><th>Mujeres</th><th>Hombres</th><th>Total</th><th>Mujeres</th><th>Hombres</th><th>Total</th></tr><tr><td>4</td><td>3</td><td>7</td><td>4</td><td>2</td><td>6</td></tr></table>	1. Sesión			2. Sesión			Mujeres	Hombres	Total	Mujeres	Hombres	Total	4	3	7	4	2	6
1. Sesión			2. Sesión																
Mujeres	Hombres	Total	Mujeres	Hombres	Total														
4	3	7	4	2	6														
Ezarritako hobekuntzak,	Koordinazio mahaian parte hartzen duten profesionalentzako prestakuntza saioak egin dira, gai hauek ardatz hartuta: indarrean dagoen araudia, arreta																		

mugarriak eta emaitza aipagarriak	emateko baliabideak eta emakumeen kontrako indarkeriaren protokoloa aplikatzea. - Jarduteko prozeduraren eta lurraldeko baliabideen ezagutza praktikoa hobetzea. - Gizarte zerbitzuen, toki entitateen eta berdintasun arloaren arteko koordinazioa indartu da prestakuntza bidez.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Aurrez aurreko prestakuntza antolatzeke zailtasunak, sakabanatze geografikoa eta udal langileen eskuragarritasun mugatua direla eta. - Mahaian parte hartzen duten profesionalen prestakuntza jaso behar dute aldizka. - Hautetsiek eta teknikariak ez diren langileek prestakuntza gehiago behar dute. - Landa ingurunera eta udalerri txikietara egokitutako berariazko prestakuntza behar da
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	- Lantalde espezifikoak: Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko lanbide arteko koordinazio mahaian parte hartzea, gizarte zerbitzuekin, toki erakundeekin eta arretaz zein prebentzioaz arduratzen diren beste baliabide batzuekin koordinatuta. - Lankidetzak proiektuak: Pirinioetako toki entitateen eta berdintasun arloaren arteko lankidetzak, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduketak bateratuak garatzeko, horien artean 2025ean jaieran eraso matxistak prebenitzeko egindako kanpaina. Kanpaina horretan, aurkezpen publikoa, material grafikoa, bideoa eta hedapena egin ziren parte hartu zuten udalerrietan. - Beste batzuk: Tokiko elkarteekin, ikastetxeekin eta lurraldeko beste eragile batzuekin lankidetzan aritu gara kanpainak eta jarduerak zabaltzeko.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	- Sakabanatze geografiko handiko landa lurralde batean erakundearen arteko koordinazioari eutsi ahal izan diogu. - Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren diagnostiko eguneratuak egin ditugu udalerrietan. - Aurreko protokoloa iraungi zenez, beste koordinazio protokolo bat egiten hasi gara. - Berdintasun arloak aktiboki parte hartu du koordinazio espazioetan. - Pirinioetako udalerrien artean jarduketak bateratuak egin dira, batez ere sentsibilizazioan eta prebentzioan.

INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025

	• Toki erakundeek gehiago aplikatu dute parte Erakunde arteko III. akordioa.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Bilerak aldizka egiteko zailtasunak, lurraldea sakabanatua delako eta langileak ez daudelako eskuragarri. • Gizarte zerbitzuen mankomunitateen artean desberdintasunak daude antolaketan, eta koordinazio espazio bereiziak eskatzen dituzte. • Baliabide tekniko mugatuak daude udalerrri txikietan. • Protokoloak aplikatzeko koordinazioa indartu behar da. • Berdintasunaren, gizarte zerbitzuen, osasunaren, hezkuntzaren eta toki erakundeen arteko koordinazioa zabaltzen jarraitu behar da. • Lankidetzarako egitura egonkorrak finkatu behar dira lurraldean.

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Altsasuko udala	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez - A25kanpaina ☐Bai ☒Ez (orduan ez zegoen teknikaririk) - Jaiak ☒Bai ☐Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Beste kanpaina batzuk ☐Bai ☐Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐Bai ☒Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Baterako kanpaina antolatu da, bai A25ean, bai M8an, udalaren esparruan. Udaleko arloekin lankidetzan aritu ginen, zenbait jarduera elkarrekin programatzeko eta antolatzeko.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Kosta egiten da herritarrek antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea. - Kosta egiten da protokoloentzako koordinazio mahaiek sentsibilizazioari eta prebentzioari heltzea.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☒Bai ☐Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☐Bai ☒Ez

Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: 2021 - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Koordinazio bilerak egiten hasi gara biktima diren emakumeei arreta ematen diegun zerbitzuen artean: GIBOAT; gizarte zerbitzuak; osasun etxea, udaltzaingoa eta berdintasun zerbitzua.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Itxaron zerrendengatik arreta espezializatu egokia emateko zailtasunak, indarkerien biktima diren emakumeak artatzeko beharra detektatzen denean. - Adingabeak artatzeko zailtasunak, haientzako baliabide espezifiko eta espezializaturik ez dagoelako. - Sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko protokoloa ezartzeko zailtasunak (0 salaketa aurkeztu dira orain arte). - Askotariko emakumeengana eta/edo egoera zaurgarrian daudenengana (gazteengana, migratzaileengana, desgaitasunen bat dutenengana...) iristeko zailtasunak. - Erreparazioa lantzeko zailtasunak, bai bakarka bai taldean.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	

Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	2024an, berdintasun teknikariak I. lurralde protokoloaren esparruan antolatutako prestakuntza programan parte hartu du. Besteak beste, gai hauek jorratu dira: indarkeria psikologikoa, indarkeria detektatzeko adierazleak, gizonekin egindako esku-hartzeak. 20 prestakuntza ordu izan dira osotara.
--	--

Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	I. lurralde protokoloaren prestakuntza programaren esparruan, eragile hauek prestatu dira: oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateetako profesionalak (20 ordu); eskualde osoko osasun etxeetako langileak (2 ordu); udaltzainak (2,5 ordu + 20 orduko prestakuntza indarkeriaren arduradunarentzat); politikariak (2,5 ordu). Guztira, neurri handiagoan edo txikiagoan, 26 pertsona prestatu dira: 18 emakume eta 8 gizon.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	• Erabat asmatu da gizarte arloko prestakuntza indarkeriaren arduradun den udal agenteari ere zabaltzean. • Partaideen balorazioak, oro har, oso onak izan dira.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Protokoloan parte hartzen duten zerbitzu batzuek (osasun etxeek eta farmaziek) ez dute parte hartzen, eta antolatutako prestakuntza saioan ordezkari politikoez ere ez dute parte hartu.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lehen aipatu bezala, emakumeen kontrako indarkeriari heltzen dioten zerbitzu eta baliabideen ordezkariekin koordinazio bilerak egiten hasi dira.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	• Prestakuntza programan hainbat zerbitzutako ordezkariak parte hartzeak aukera ematen du langileak eta baliabideak elkarrengandik hurbil egoteko, eta, hala, lankidetzak eta koordinazioa errazten da.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• I. lurralde protokoloan parte hartzen duten zenbait zerbitzuekin (osasun etxeekin eta poliziaekin) koordinatzeko zailtasunak.

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Aranguren Ibarreko udala	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzailleak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☒ Bai ☐ Ez - Emakume eta neska zientzialarien Nazioarteko Eguna, otsailaren 11an - LGBTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna, ekainaren 28an
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergeia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	- Desgaitasunen bat duten emakumeekin lan egiten duten gizarte erakundeentzako sentsibilizazio kanpainak espezifikoki zabaldu dira, haien erabiltzaileekin lan egin dezaten. - Mugikortasun urriko pertsonentzako eserlekuak erreserbatu dira berdintasun arloak kultur etxean antolatutako ekitaldien lehen lerroetan. Aparkalekua ematen zaie

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	○ Badago aholkularitza juridikorik? ☒ Bai ☐ Ez ○ Badago aholkularitza psikologikorik? ☐ Bai ☒ Ez * *Aholkularitza psikologikoa kontratatzeke pleguak egiten ari gara. Aurrekontu partida espezifiko dugu Udalaren 2026ko aurrekontu orokorretan
Protokoloak	• Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Sinadura data: ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez • Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez • Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez • Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Adibidez: desgaitasuna, hizkuntza oztopoak, adingabeak eta abar dituzten emakumeentzako arreta. • Desgaitasuna duten emakumeentzako arreta • Bigarren urtez jarraian, A25eko adierazpen instituzionala irakurketa errazean egin da, gaztelaniaz zein euskaraz. Horri esker, kanpainan parte hartzen ahal dute, eta kontzentrazio instituzionalean manifestatzeko eskubidea hobeki erabili. • Hizkuntza oztopoak dituzten emakumeentzako arreta. Gizarte zerbitzuetan, errusiera dakien lankide bat hasi da lanean, eta hizkuntza hori erabiltzen duten herrialdeetatik datozen hainbat emakumeri laguntzen ari da, arreta hurbilagoa eskaintzen eta haien beharrak hobeki detektatzen dituelako.

	• Adingabeentzako arreta. Gizarte zerbitzuak ikuspegi dialogikoan trebatu dira, erabiltzaileei kalitate handiagoko arreta emateko. • Artatze guneak eta itxarongelak egokitu dira • Beste batzuk
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Desgaitasuna duten emakume gutxi joaten dira salaketa jartzera, nahiz eta estatistiken arabera emakumeen kolektibo espezifiko horren kontrako indarkeria handiagoa eta intentsitate handiagokoa den, oro har, emakumeen biztanleria orokorraren kontrakoa baino.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua • "Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak". NUKF. Toki- eta lurralde-erakundeetako berdintasun teknikariei zuzendua. Ordu kopurua: 6 ordu. • "DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA: ARRETA IRISGARRI ETA INKLUSIBORANTZ AURRERA EGINEZ" jardunaldiak Ordu kopurua: 4 ordu. • Udaletxean. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NABIk) sustatutako "Nafarroako emakume gazteen kontrako sexu indarkeriaren inguruko ikerlanaren" aurkezpena Ordu kopurua: 4 ordu.
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera • Udaletxean. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NABIk) sustatutako "Nafarroako emakume gazteen kontrako sexu indarkeriaren inguruko ikerlanaren" aurkezpena Ordu kopurua: 4 ordu. Partaideak: tokiko koordinazio mahaia osatzen dutenak (12 pertsona: 10 emakume eta 2 gizon)

Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Tokiko koordinazio mahaiko kideek adierazi dute beharrezkoa dela <i>sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoari</i> buruzko prestakuntza bat izatea, sexu indarkeriako kasuak hobeki detektatu, artatu eta ebaluatzeko. Horregatik, 2026rako horri buruzko prestakuntza programatu dugu.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak • Lankidetzak proiektuak Toki- eta lurralde-entitateetako berdintasun teknikariok jaso genuen "Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazio protokoloak ezartzeko tresnak" izeneko prestakuntzari esker, parte hartzeko gune bat sortu zen, eta bertatik ikaskuntza kolektiboa eta sinergiak, gure baliabideak optimizatu ahal izateko. Era berean, oso aberasgarria izan zen aurkitzen ditugun zailtasunak partekatu eta beste erakunde batzuetan antzeko egoerak nola konpondu ziren entzutea. • Beste batzuk
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Nabarmendu nahiko nuke toki- eta lurralde-entitateetako berdintasun teknikariok jaso genuen "Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazio protokoloak ezartzeko tresnak" izeneko prestakuntza, hari esker parte hartzeko gune bat sortu zelako, eta bertatik ikaskuntza kolektiboa eta sinergiak, gure baliabideak optimizatu ahal izateko. Era berean, oso aberasgarria izan zen aurkitzen ditugun zailtasunak partekatu eta beste erakunde batzuetan antzeko egoerak nola konpondu ziren entzutea.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA

Barañaingo udala

Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez - A25 kanpaina ☒Bai ☐Ez - Jaiak ☒Bai ☐Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Beste kanpaina batzuk ☐Bai ☐Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐Bai ☒Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Oso modu positiboan baloratzen da toki erakundeek, NUKFek eta NABik helburuak eta lan ildoak partekatzekeo egiten duten sareko lana.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☒Bai ☐Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☒Bai ☐Ez
Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez

	- Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☒Bai ☐Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Adibidez: desgaitasuna, hizkuntza oztopoak, adingabeak eta abar dituzten emakumeentzako arreta. Arreta eskatzen duten emakumeen beharretara egokitzen saiatzen gara beti.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak Iraupena: 6 ordu. 2025eko maiatzaren 7an eta 21ean. Aitziber Bañuelosek emana Udalak antolatu eta hurrengo atalean deskribatzen diren prestakuntzetara ere joan naiz
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera Emakume gazteen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza Udalerriko gazteekin prebentzio lana edo esku-hartze zuzena egiten duten funtsezko eragileei zuzendua. Rut Iturbidek emana Data: Maiatzaren 8a Iraupena: 3 ordu Parte hartzea: 11 pertsona (10 emakume eta gizon bat) Sexu jazarpen eta/edo sexuagatiko jazarpen kasuak prebenitzeko eta haiekin jarduteko protokoloari buruzko prestakuntza espezifiko.

	Protokoloa kudeatzeko egituretako kideei eta Berdintasunerako barne planaren jarraipen eta ebaluazio batzordeko kideei zuzenduta dago, bai eta plantillako eta langileen legezko ordezkarietako beste pertsona batzuei ere, ordezkari gisa jardun behar badute ere. Datak: 2025eko martxoaren 21ean, apirilaren 11n eta irailaren 19an, 12etatik 14etara. Iraupena: 6 ordu Parte hartzea: 15 pertsona. (10 emakume eta 5 gizon)
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Udaleko arloko langileentzako etengabeko prestakuntza mantentzen da. Udaleko arlo hori indarkeriaren arloan modu koordinatuan jarduteko protokoloaren zati bat da, bai eta jazarpen protokoloa kudeatzeko egituretako langileena ere. Herriko mugimendu feminista prestakuntzetara joaten ari da.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikak • Lankidetzak proiektuak • Beste batzuk Protokoloa kudeatzeko mahaiaz gain, Barañainen aldi-aldi biltzen den haurren eta adingabeen sarea, besteak beste ikastetxeak, osasun etxeak, polizia eta OGZk biltzen dituen, espazio egoki bihurtu da prestakuntza beharrak identifikatzeko eta bertaratze arrakasta handiagoa duten deialdiak egiteko
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	

**NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN
KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO
JARRAIPEN TXOSTENA**

Baztango udala

I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☒ Bai ☐ Ez Gaia: M17, E28 eta urriaren 15a
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Jaietan indarkeria matxistak eta sexu indarkeriak prebenitzeko material berriak lantzen ari gara, 15 herrietako jai batzordeei eta <i>Baztandarren Biltzarra</i> jaialdiari ematen diegun material lagungarri gisa. Jai batzorde horiekin, gainera, jaietan eraso sexisten aurrean arreta eta lehen erantzuna emateko protokoloak lantzen ditugu, herritarren brigada moreen bidez, eta prestakuntza, materialak eta aholkularitza ere eskaintzen dizkiegu.

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Herritarren (eta gazteen) parte hartzea gero eta txikiagoa da prestakuntza- eta/edo sentsibilizazio-ekintzetan, eta horregatik zaila da ekintzek nahi bezalako eragina izatea. Gainera, indarkeriaren diskurtso negazionistak ugaritzen ari dira eta, aldi berean, mugimendu feminista zatitzen ari da. Feminismoaren eta indarkeria matxisten inguruko polarizazio sozialak gero eta konplexuagoa egiten du esku-hartzea, batez ere, jai eremuetan.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	○ Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago aholkularitza psikologikorik? ☒ Bai ☒ Ez <i>Indarkeria matxistaren biktima diren eta indarkeria horretatik bizirik atera diren emakumeei laguntzeko talde egonkor bat dago. Bertan, musikoterapeuta profesional eta gizarte-hezitzaile banak parte hartzen dute (biak emakumeak dira eta biktima diren emakumeei arreta ematen espezializatuak).</i>
Protokoloak	● Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Sinadura data: 2023ko abendua ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez <i>Baztango indarkeria matxista kasuetarako Erakunde arteko koordinazio <u>protokoloaren tokiko koordinazio mahaia</u>. Baztango Erantzun sozialerako protokoloaren <u>erantzun sozialeko mahaia</u>. <u>Berriazko koordinazio guneak</u> sortzen dira, Baztanen zenbait herrik edo jaik antolatzen dituzten <u>Briqada moreei</u> laguntza, orientazioa, materialak eta laguntza teknikoak emateko (16-17 jai herrikoi, gutxi gorabehera) (mugimendu feminista, jai batzordeak, kultur erakundeak, etab.). Gainera, indarkeria matxistei aurre egiteko, aholkularitza, orientazioa eta informazioa ematen zaie, edo esku-hartzea eta/edo baliabideen kudeaketa koordinatzeko guneak sortzen dira, protokoloaren esparrutik kanpo dagoen edozein ingurune edo bailarako tokitan, betiere Udalari hala eskatzen bazaio (hezkuntza sistemak, gizarte erakundeak edo beste batzuek).</i>

	- Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai ☐ Ez <i>Ez da udal egituretatik pasatako protokolo formala, jaiak ez baitira udalaren eskumena. Herri bakoitzean dauden jai batzorde edo talde feministekin adosten dira.</i> - Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez <i>Erantzun sozialerako mahaia dago, behar denerako. <u>Berariazko koordinazio guneak</u> sortzen dira, Baztanen zenbait herrik edo jaik antolatzen dituzten <u>Briгада moreei</u> laguntza, orientazioa, materialak eta laguntza teknikoa emateko (16-17 jai herrikoi, gutxi gorabehera).</i> - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☐ Bai ☒ Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez <i>Aurten egingen da, 2026an.</i> - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☒ Bai ☐ Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez <i>Koordinazio protokolo orokorrean integratuta dago.</i>
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	- Garraio- eta zaintza-zerbitzua, emakumeei genero indarkeriako egoeretan laguntzeko jarduera zein zerbitzuetara joaten laguntzeko (elkarguneetara, laguntza psikologikora, epaitegietara eta abarretara joaten laguntzeko). - Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango polizia-, gizarte-, osasun- eta Berdintasun-zerbitzuekin batera eta banaka egindako prestakuntza eta esku-hartzeak modu koordinatuan egiteak anitz optimizatu eta homogeneizatu ditu eremu horretan lan egiteko moduak; jasotako prestakuntza berdintzen ari da, eta, nire ustez, eragina handiagoa da orain.

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Lehenik eta behin, landa testuinguruak eta lurraldearen sakabanatze geografiko handiak desberdintasun nabarmenak sortzen dituzte Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzu espezializatueta iristeko. Zerbitzu anitz Iruñean zentralizatzek, garraio publikoaren mugekin eta eskualdeko mugikortasun zailtasunekin batera, zaildu egiten die emakumeei arreta psikologikoa, aholkularitza juridikoa, babes baliabideak eta prozesu judizialei lotutako dispositiboak (adibidez, familia elkarguneak) erabili ahal izatea. • Era berean, lurraldean zerbitzu berezi jakin batzuen presentzia edo irisgarritasuna eskasa dela egiaztatu dugu. Kasu batzuetan, baliabide horiek ez dute aurrez aurreko arretarik ematen inguruan, edo telefono bidez bakarrik egiten dute esku-hartzea, eta horrek une erabakigarrietan orientazioa egokia izateko bermeak murrizten ditu, hala nola salaketa jarri aurreko erabakiak hartzean. Era berean, sexu indarkeriako arreta espezializatu ez da zuzenean eskualdean ematen, eta horregatik kasuak Iruñeko beste baliabide saturatu eta zentralizatu batzuetara bideratu behar dira. • Muga horiez gain, zenbait zerbitzu espezializatu gainezka daude, batez ere arlo psikosozialean, eta itxaron zerrenda luzeak dituzte arreta psikologikoa edo hezkuntzakoa jasotzeko. Egoera horrek atzeratu egiten ditu emakumeei suspertzeko eta ordainak jasotzeko funtsezkoak zaizkien prozesuak, eta eragin berezia du landa eremuetan, arreta aukerak mugatuagoak baitira. • Gainera, zailtasunak identifikatu ditugu detekzioan eta lehenengo esku-hartzeetan, batez ere horiek genero- edo indarkeria-arloko prestakuntza espezifikorik ez duten profesionalei dagozkienean. Lehen arretako dispositibo batzuetan espezializaziorik ez egoteak batzuetan zaildu egiten du kasuak behar bezala identifikatzea, gutxi doitutako esku-hartzeak eragiten ditu, eta emakume batzuek zirkuitu instituzionalak uztea edo saihestea dakar, arretan jasotzean bizipen negatiboak edukitzeagatik (larrialdiko osasun zerbitzuak,
--	---

	espezializaziorik gabeko polizia zerbitzuak...). • Era berean, emakumeek erakundeen erantzun desegokiak jaso dituzte baliabide (polizial, judizial edo sozial) batetik besterako ibilbidean. Horrek sistemarekiko mesfidantza sortzen du, eta prozesu judizialak eta/edo erreparaziokoak hasteko edo mantentzeko erresistentzia handitzen du. • Bestalde, toki erakundeek, batez ere landa inguruneetan, baliabide mugatuak dituzte emakumeek behar duten laguntza integrala bermatzeko. Udaletik sentsibilizaziorako, erakundeen arteko koordinaziorako eta komunitatean laguntzeko ekimenak bultzatzen diren arren, baliabide material eta giza baliabide nahikorik ez dagoenez, zaila da detektatutako beharrei behar bezala erantzutea eta indarrean dagoen araudian aitortutako eskubideak erabiltzen direla bermatzea, eta zaila da, halaber, emakumeei merezi eta behar duten laguntza ematea. Egiaztatu dugu, anitzetan (batez ere polizian eta epaitegietan), emakumeek emaitza hobeak lortzen dituztela esperientzia duten profesionalek laguntzen badiete ELJEZera, poliziara, epaitegietara eta tankerako baliabideetara. Zerbitzu horietako profesionalek hobeki artatzen dituzte, serioago, eta ezagutzen duten norbaitengandik jasotako informazioa hobeki ulertzen eta barneratzen dute. Laguntza pertsonalizatuak izan beharko luke emakumeei ematen zaien zerbitzua (adibidez, DBABak langileren bat izan lezake zerbitzu hori emateko, baldin eta justizia auzitegitik deszentralizatzen ahal bada). • Gainera, “Iparraldeko eremua eta Iruñerria” delakoan zerbitzu publikoak zonakatzeko egungo ereduak zaildu egiten du irisgarritasuna eta lurraldeen arteko koordinazioa. Estali beharreko eremuaren hedadura geografikoaren eta baliabideen zentralizazioaren ondorioz, zerbitzu espezializatu gutxi daude lurraldean, eta herritarrek zuzeneko arreta jasotzeko duten denbora motza da. Horrek eragin negatiboa du esku-hartzeen kalitatean eta jarraitutasunean.
--	--

	• Azkenik, erreparazioaren dimentsioari dagokionez, egungo esparru sozial eta instituzionalean, prozesu judiziala eta zigor penala oraindik ere emakumeen kontrako indarkerien erreparazio sozialerako modu nagusitzat hartzen dira, egitateak publikoki aitortzea, epaitegietan biktimen hitza baliozkotzea eta erasotzailea zigortzea baitakarte. Hala ere, tokiko zerbitzuek jasotako testigantzek agerian uzten dute, praktikan, prozesu judizialek nekez ematen dietela emakumeei haiek nahi duten ordaina. Aitzitik, haietako anitzek prozesu horiek luze, konplexu eta emozionalki nekagarri/suntsitzaile gisa deskribatzen dituzte, eta anitzetan zalantzan jartzen dituztela sentitzen dute, laguntza gutxi dutela edo nahikoa informazio ez dutela. Horrek frustrazioa eta akidura, eta, kasu batzuetan, erakundeek babesgabe utzi dituztela edo birbiktimizatu egin dituztela sentitzen dute, alegia, indarkeria instituzionala jasaten dutela. Hori dela eta, ibilbide judizial osoan laguntza, informazioa eta babesa behar bezala jasoko dutelako bermeak sendotzeko beharraz hausnartu behar dugu (ELJEZek eta operadore judizialek prestakuntza behar dutela), baita emakumeen suspertze prozesuei modu egokiagoan erantzunen dieten erreparazio mekanismo gehiago garatzeko beharraz ere. • Oro har, egoera horiek agerian uzten dute landa eremuetan baliabide espezializatu gehiago behar dela, zerbitzuak deszentralizatu behar direla, detekzioan eta lehen arretan inplikaturako profesionalen prestakuntza hobetu behar dela eta arreta irisgarria, aurrez aurrekoa eta kalitatezkoa bermatu behar dela, indarkeria matxisten aurrean emakumeek dituzten eskubideak berdintasunez erabiltzeko eta kalitatezko ordain osoa emateko. • Arriskutsutzat jotzen dira gasolindegietan, farmazietan edo beste gune sozial batzuetan jarritako puntu moreak, horietan lehen arreta ematen dutenek ez baitute ez oinarritzko prestakuntzarik, ez prestakuntza espezializaturik.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	

Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera Langile guztiei bidali zaizkie NUKFek, NABIk, Gobernuaren Ordezkaritzak eta beste batzuek berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eskaintzen dituzten ikastaro eragileak, baina ez dakigu nork ematen duen izena, nork egiten duen ikastaroa eta nork burutzen duen prestakuntza. - CONFIM: XII. topaketa morea. Urriaren 4an, 09:15-14:45. - NUKF: Ikastaro berezitua - 3119 - Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak. Datak: Maiatzaren 7 eta 21ean; 11:00-14:00. - NUKF: 3123 Nola egin berdintasunean eragin positiboa izanen duten arauak. Talde teknikoei laguntzeko gakoak. Datak: Ekainaren 10, 11 eta 19an; 10ean 9:00-14:00; 11 eta 19an 2,5 orduko online saioak. - NABI: Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeriak: arreta irisgarri eta inklusiborantz aurrera eginez. Data: Urriaren 1ean, 09:30 - 13:15. - NABI: NAFARROAKO EMAKUME GAZTEEN KONTRAKO SEXU INDARKERIARI BURUZKO I. AZTERKETA. Data: Urtarrilaren 27an 12:00etan (2 ordu). - GOBERNUAREN ORDEZKARITZA: Haurren kontrako sexu abusuaren (HSA) susmoa dagoenean detektatzea eta jakinaraztea. Data: Ekainaren 19an, 09:30-14:30.
Berdintasun teknikariak (emakumezkoa) antolatutako prestakuntza	PRESTAKUNTZA HORIETAKO GEHIENAK ELKARREKIN ANTOLATZEN DIRA BORTZIRIETAN, MALERREKAN ETA BAZTANEN, lan sareak sortzeko, arreta taldeen ezagutza eta esku-hartzea homogeneousatzeko eta hiru toki erakundeetako bakoitzak eremu horretan prestakuntza emateko dituen baliabide publikoak optimizatzeke. • Familia ingurunean indarkeria bikarioa eta haurren kontrako tratu txarrak detektatzea eta horiei heltzea. Malerrekek eta Baztanek

	antolatuta. ○ Online saio teorikoa BOGAN Prestakuntzarekin <i>Iraupena: 2 ordu. Modalitatea: Online</i> - Hurrei eta genero indarkeriari buruzko estatu mailako eta Nafarroako lege esparrua ezagutzea. - Indarkeria bikarioaren ezaugarriak ulertzea. - Indarkeria bikarioko egoerak identifikatzea. - Ikuspegi berezia hezkuntza sektorearen prestakuntzan. ○ Online saioa Anne Garmendiarekin (eskualdeko profesionalarekin) <i>Formatua: Bideoa ikusteko dago.</i> - Hurrengan tratu txarrak goiz detektatzeko tresna bat aurkezten da eta nola erabiltzen den azaldu. - Jarraibide praktikoak ematen dizkie hezkuntzako langileei (orientatzaile eta irakasleei). - Adierazle gakoak eta jokaera-adierazle korrelazioak identifikatzea (<i>red flags</i>). - Beste erakunde batzuekin koordinatzeko txostenak egiteko jarraibideak. ○ Kasu praktikoak, saio bat eremu bakoitzeko: fluxugrama, eskuliburua, dokumentuak eta ibilbidea (HNLTK emana) • Bortzirietako saioa 9:30 - 11:00 • Malerreko saioa 12:00 - 13:30 • Baztango saioa 9:30 - 11:00 - Kasu praktikoen bidez fluxugramak aurkeztu eta aztertzea. - Sareko eragile/erakunde bakoitzaren erantzukizunen definizioa. - Funtsezko galderei erantzutea: zer lantzen da Sarean? zer espero da Sarearengandik? - Kasu baten jarraipen osoa. • Adineko emakumeen kontrako indarkeria: sexismoaren eta adinkeriaaren arteko eraginak. Iraupena: Ordu eta erdi. Prestatzailea: Ruth Iturbide. Bertaratutakoak: OGZ, ELZko enpleguak, berdintasun zerbitzuak, osasun zerbitzuak OGZ, polizia espezializatuak eta eskualdeko foruzaingoa, udaltzaingoa.
--	--

	• Sexu indarkeriak Nafarroako emakume gazteengan. Iraupena: Ordu eta erdi. Prestatzailea: Ruth Iturbide. Bertaratutakoak: Tokiko koordinazio mahaiko eragileak (GIBOAT, OGZ, berdintasun zerbitzua, osasun zerbitzuetako OGZ, polizia espezializatuak eta eskualdeko foruzaingoa, udaltzaingoa). • Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako baliabideen aurkezpena, NABI, GIBOAT eta SIAIZen eskutik. Iraupena: 2 ordu. Bertaratutakoak: OGZ, berdintasun zerbitzuak, osasun zerbitzuetako OGZ, polizia espezializatuak eta eskualdeko foruzaingoa, udaltzaingoa, tokiko elkarteak, politikariak, hezkuntza sistema. • Pentsioa ez ordaintzea, emakumeen kontrako indarkeria ekonomikoa, elikadura pentsioa nahita ez ordaintzearen ondorioak genero ikuspegitik aztertzeko. Iraupena: 2 ordu. Prestatzailea: Ixaxi Pérez. Partaideak: OGZ, berdintasun zerbitzuak, osasun zerbitzuetako OGZ, Baztango udaltzaingoa.
--	--

Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Tokiko edo udalaz gaindiko langileentzako prestakuntza gehienak elkarrekin antolatzen dira Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen, lan sareak sortzeko, arreta taldeen eta ESKU-hartzea homogeneizatzeko eta hiru toki erakundeetako bakoitzak eremu horretan prestakuntza emateko dituen baliabide publikoak optimizatzeko.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Toki erakundeetako langileek eta eskualdeko gainerako eragileek kostata hartzen dute parte, batez ere eskualdeko segurtasun indar eta kidegoetako langileek ez dute gogorik (eskualdean zabalduetako agenteak). Foru Diputazioko langileak anitz mugitzen dira (osasunbidea, segurtasun indar eta kidegoetako agenteak, zerbitzu espezializatuak, etab.), arreta emateko hizkuntzarekin arazoak, foru zerbitzuak lanpostu anitzek ez dutelako eskakizunik.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Zuzeneko koordinazioa emakume eta adingabeen taldearekin (EMUMEekin) eta Foruzaingoaren Laguntza Brigadarekin (baita zonako erabiltzaileei jarraipen zehatzak egiteaz edo VIOGENen jarraipenak egiteaz arduratzen diren zonako agenteekin ere). • Kasu edo lege kontsulta batzuetarako ELJEZekin harremanetan jartzea. • Koordinazioa eta harremana GIBOATEkin, HNLTkin eta SIAIZekin kasu batzuetarako. • Osasunbideko zerbitzu psikologikoekin koordinatzea eta horietara bideratzea, kasu batzuetan, eta eskualdeko zerbitzu pribatuekin beste batzuetan, oinarritzeko gizarte zerbitzuak larrialdi funtsekin edo Estatu Ituneko funtsekin.

Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	• Baztango herrietako (15) eta <i>Baztandarren Biltzarra</i> kultur elkarteko festetan Brigada moreak martxan jartzen laguntzea. Prestakuntza, materialak, laguntza logistikoa, orientazioa, jarraipena eta aholkularitza. Jaietako matxismoari buruz salatu beharreko kasu edo arazoen aurrean erantzun sozialak ematen laguntzea eta horiek koordinatzea. • Erantzun sozialak ematea genero indarkeria eta indarkeria matxista kasuen aurrean, lurralde osoan batera eta koordinatuta. Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango GIBOATEkin, oinarritzko gizarte zerbitzuekin, polizia espezializatuekin, osasun etxeetako gizarte zerbitzuekin eta berdintasun zerbitzuekin koordinatu gara, indarkeria matxistaren biktima diren eta indarkeria horretatik bizirik atera diren emakumeentzako laguntza psikosozialeko talde egonkor bat antolatzeke eta martxan jartzeko. Hilean 3 saio ibiltari (saio bat eskualde-buru bakoitzean). Hil bakoitzean gai bat dute eta urritik ekainera bitartean saio batzuk daude planifikatuta: 2 saio gizarte-hezitzaile espezializatu batekin eta beste bi saio eskualdeko musikoterapeuta espezializatu batekin. Duela urte batzuetatik, azken harekin elkarrekin lan egiten dugu jarduera eta taldeetan, autonomia erreparatzeko eta elkarrekiko laguntza sustatzeko. Eskatuz gero, adingabeak garraiatzeko eta zaintzeko zerbitzua eskaintzen dugu, emakumeek errazago hartu dezaten parte, sakabanatze geografiko handiko eremu batean lan egiten baitugu. • Praktika ona da Malerreka, Baztan eta Bortzirietako OGZekin eta berdintasun zerbitzuekin elkarlanean formazio bateratuak antolatzea. Esku-hartzeak eragin handiagoa du, baliabide publikoak hobeki aprobetxatzen dira, eta zubiak eraikitzeke eta profesionalen arteko harremanak hobetzeko balio du; hala, sareko lana hobetzen da, informazioa hobeki partekatzen da eta erakundeak hobeki koordinatzen dira.
--	---

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• 14/2015 Foru Legeak bermatutako zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak, zerbitzu horiek beteta edo itxaron zerrenda luzeekin daudelako (gai horrek eragin negatiboagoa du beti landa eremuetan eta haietara iristea zaila den eremuetan, eta bereziki eremu horretako emakumeei eragiten die; hala, ez da betetzen herritar guztiek zerbitzu eta eskubideak baldintza berberetan erabiltzeko duten eskubidea; gainera, ez da ematen bereizkeria anizkoitzerako behar den arreta berezia, eta horrek mugatu egiten du informazioa, orientazioa, arreta, babesa eta suspertzea): • Itxaron zerrenda luzeak daude GIBOATeko edozein arreta psikosozialerako (psikologoak, gizarte-hezitzaileak) • SIAIZ ez da arreta psikologikoa emateko lekualdatzen eta gure eskualdean garraio kolektiboak oso lotura txarrak ditu. Kasu horiek GIBOATera bideratzen dira, nahiz eta sexu indarkeria izan, eta itxaron zerrenda luzeetan sartzen dira. • ELJEZ ez da bertaratzen, eta orientazio, laguntza eta doako lege aholkularitza saioak telefonoz egiten ditu. Ezagutu ditugun kasuetan eta esku hartu dugun kasuetan, INOIZ EZ dira bertaratu laguntza juridikoa aurrez aurre eta behar bezala emateko, polizian salaketarik jarri arte. Horren ondorioz, emakumeak bermerik gabeko prozesu judizialetan murgilduta egoten dira lege izapidea hasten denetik, ez dute nahikoa informazio erabaki egokiak hartzeko, kasua baloratzeko garrantzitsua den informazio guztia ez duten salaketak sinatzen dituzte... • Salaketarik jarri aurretik oso gomendagarria da (eta eskaintzea derrigorrezkoa) lege- eta psikologia-aholkularitza jasotzea. Bada, poliziaren bulegoetan ez da salaketarik eskaintzen edo egiten, edo ELJEZean unean dagoen abokatuaren eta emakumearen arteko telefono bidezko elkarrizketan egiten dira, eta gehienez ere 5 minutu irauten dute. Oso gutxitan ematen da laguntza psikologikoa salaketaren aurretik. Bi egoera horiek oztopatu egiten dute, edo, behintzat, ez dute errazten, emakumeek salaketei buruzko erabaki lasaiak, hausnartuak eta informatuak hartu ahal izatea, emakumeek jakitea
--	---

	zer eskubide dituzten eta zer zerbitzu izan ditzaketen, besteak beste, gure tokiko zerbitzuak.
--	--

	• • Lehen esku-hartzeak, anitzetan, espezializaziorik gabeko poliziek egiten dituzte (kasu honetan, lanpostua Baztanen duten agenteak). Prestakuntzarik ez dutenez, ez dituzte identifikatzen indarkeria kasuak, esku hartzen dutenean ere ez, emakumeak gaizki sentiarazten dituzte (zalantzan jartzen dituzte), “aholku” edo argibide txarrak ematen dizkiete, eta emakume anitzek uko egiten diote prozesuak hasteari edo beste zerbitzu batera joateari. Alegia, lehen arreta txarra edo orientazio eskasa emateagatik galtzen ditugu. Garrantzitsua da, esku hartzen duen profesionala edo genero eta/edo sexu indarkeriaren egoera identifikatzen duena edozein dela ere, esku-hartzeak gutxieneko prestakuntza izatea. Baztanen genero- eta sexu-indarkeria kasuetan esku hartzen duten eragile eta erakundeentzat egiten ditugun prestakuntzetara gonbidatzen ditugu langile horiek, baina oso gutxitan etortzen dira. Ezinbestekoa da espezializaziorik gabeko kaleko agenteek oinarritzko ezagutzak izatea kasuak identifikatzeko, biktimak eta/edo haien senideak behar bezala eta tentuz tratatzeko eta emakumeek dituzten eskubideak eta haiei laguntzen dieten zerbitzuak ezagutu ditzatela, eta emakumeak tokiko zerbitzu espezializatueta bideratu ditzatela. • Iruñean elkartzen dira emakumeekin, ez dago elkargune hurbilagorik, eta horrek zerbitzu honen bidez zaintza eta bisitak kudeatzeko zailtasuna sortzen du. Ezinbestekoa da eskualdean artatzeko elkargune bat izatea. • Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak (GIBOAT, HNLT, GLT, alderdi judizialak, gizarte zerbitzuen zentroa, etab.) zonakatzeari eremu geografiko hori “iparraldeko eremua eta Iruñerria” barruan uzteak zerbitzu askotarako sarbidea zailtzen du, eta herritarrek sentitzen dute instituzioek alde batera uzten dituztela (emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, anitzetan, indarkeria instituzionala ere jasotzen dute); gainera, zaila da toki erakundeak eta zonaldeari esleitutako profesionalak koordinatzea, denbora gutxi dutelako eskualdean arreta emateko, eta are
--	---

	zailagoa da zerbitzu profesional espezializatuak erabiltzea euskaraz artatzeko eskatzen bada...
--	--

	“Iparraldeko eremuko eta Iruñerriko” zerbitzuak deszentralizatu egin behar dira, eta iparraldeko eremuan, gutxienez, gizarte zerbitzuen zentro bat ireki behar da, hain eremu zabalarri estaldura zuzena emateko. Izan ere, estaldura desitxuratu egiten da eskualdeak lan handia behar duelako, besteak beste zerbitzu propioak (HNLT; GIBOAT, elkargunea...) behar dituelako, eta eskualdean aurrez aurre lan egiten duten profesionalak, bulegoak, profesionalei arreta eta prestakuntza emateko espazioak, herritar talde zaurgarriekin lan egitea eta abar behar dituelako. Nafarroako Gobernuaren betebeharra da udalerriei eta landa eremuei baliabide materialak eta giza baliabideak ematea, herritarrek beren eskubideak berdintasunez erabili ahal izateko, eta oso zaila da hori egitea Iruñerriari eta iparraldeko eremu osoari baliabide urriz erantzun nahi dieten egiturekin. • Baztanen emakumeen kontrako indarkeria eta sexu indarkeria kasuetan emandako urratsak berreraiki ondoren (uneren batean udaleko zerbitzu lokalek artatu dituztenak), esan dezakegu elkarrizketatutako emakume batzuek indarkeria instituzionala jasan dutela (arreta eskasa polizia bulegoetan, arreta eskasa indarkeria epaitegietan eta familia epaitegietan, SAP delakoa aplikatzea, arazoak ELJEZen arreta jasotzean, abokatuen sentsibiltate eta/edo ezagutza faltagatik, arduragabekeria zerbitzu anitzetan, oinarritzko gizarte zerbitzuetan ezagutza eta prestakuntza falta, tokiko eta Foru Komunitateko zerbitzuak gainezka egotea...). Toki erakundeok, eta are gehiago landa eremuetan, aurre egin behar diegun eta jada zehaztu ditudan erronka espezifikoengatik, ez dugu bitartekorik emakumeei merezi duten laguntza eta baliabideak eskaintzeko, legeek aitortzen dituztenak eta, guztion artean, bermatu beharko genituzkeenak eskaintzeko. Ahal dugun guztia egiten dugu arretarik onena emateko, baina anitzetan errealitatearekin guztiz bat datozen emakumeen kexa azkengabeak jaso behar ditugu, haien itxaropenak maneiatu eta abar. Emakumeak erakundera etor daitezten egiten ditugun kanpainak itxaropen batzuk sortzen dizkiete eta gero ez ditugu betetzen, ezta zerbitzu batean ere.
--	--

	Horrek frustrazioa sortzen du, eta emakumeak zerbitzu eta prozesu erreparatzaileetatik urruntzen ditu (prozesu judizialak izan ala ez). Prozesu judizialekiko erresistentzia gero eta handiagoa da, eta hori arazotsua baina ulargarria da, erantzun normala erakundeetatik edo mugimendu sozial eta feministetatik eskaintzen diegun errealitateari. • Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimea diren eta/edo indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei arreta ematen dieten eragile eta erakundeekin koordinatzeko gune bat izan beharko genuke, gutxienez urtean behin elkartuko zena. Bertan, erakundeok biktimei eman behar diegun babesean huts egiten dugun kasuak eraman ahalko genituzke, eta emakumeen ibilbideak berrikusten ahalko lirateke, oztopoetan eta zailtasunetan ereduak identifikatzeko eta prozesuetan duten eragina neurtzeko. Era berean, oso baliagarria izanen litzateke, Foru Komunitateak indarkeria matxistari ematen dion erantzunari tokiko ikuspegia gehitzeko, Erakunde arteko III. akordioaren batzorde, jarraipen-espazio eta/edo lantaldeetan berdintasun zerbitzu lokalen (eta GZOen) ordezkariak egotea. • Era berean, Foru Komunitateak eta tokiko erakundeek emakumeen kontrako indarkeriei ematen dieten erantzuna eta zerbitzuen arteko koordinazioa hobetze aldera, baliagarria izanen litzateke, halaber, toki entitateetan eta berdintasun unitateetan berdintasun teknikariek lanerako gune misto bat izatea, besteak beste, 14/2025 Foru Legeko II. Ekintza Planaren urteko plan operatibo estrategiko eta sektorialak lantzeko, hainbat gunetan NABlri aipatu diogun moduan (14/2025 Foru Legeko II. Ekintza Plana egiteko prozesuan gardentasunez egindako ekarpenak oinarri hartuta).
--	--

	• GIBOATek eta SIAIZek giza baliabide eta baliabide material gehiago behar dituzte, ongi prestatuta daudenak, batetik bestera mugitzen ahalko direnak eta horretarako baliabideak izanen dituztenak. Gainera, beren lanaren balioa benetan aintzatetsi behar da, kasualitatez sektore feminizatua baita eta lan baldintzak hobetzea eskatzen baitute. Ezin dugu normalizatu itxaron zerrenda 4 edo 5 hilabetekoa izatea, ezta psikologoarekin saio kopuru mugatua izatea ere... Gainera, prozesuen hondarrean gogobetetze elkarrizketak jaso beharko lirateke, eta neurketa horiek kontuan hartu beharko lirateke eskaintzen diren zerbitzuak hobetzeko. • Oro har, baliabide profesional eta material gehiago, prestakuntza gehiago, deszentralizazioa eta emakumeei eta profesionalei entzutea. Eskandalagarria da Nafarroan emakumeek jasaten duten indarkeria eta utzikeria instituzionala, eta Nafarroako Gobernua kezkatu beharko luke.
--	---

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Berriozarko udala	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☐ Bai ☒ Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Eraso sexisten aurkako mahaia deitu dugu jaien aurretik, zerbitzuak koordinatzeko eta nola jokatu jakiteko. Jaien ondoren, balorazio txostena bidali zen, hobetzekoekin, indarguneekin eta aztertutako kasuekin.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Zaila da indarkeriari buruzko datuak biltzea Datuak biltzeko erabilitako prozedurak etengabe jartzen dira zalantzan, Datuak Babesteko Legea dela-eta. Datuak ez dira garaiz bidaltzen
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☒ Bai ☐ Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☒ Bai ☐ Ez

Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: 2021/10/08 - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? → eraso sexisten aurkako mahaia ☒Bai ☐Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? → Instrukzio batzordea dago ☒Bai ☐Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Aholkularitza psikologikoa eta ordutegiak aldatu ditugu. Hezkuntzaren parte hartzea erraztea.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Aholkularitza psikologikoak ordutegi zabalagoa behar du batzuetan. Langileak txandakatzen dira, eta, hortaz, zaila da mahaia jarraipena ematea. Ez dakite zer egin behar duten.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	NABlren eta NUKFen prestakuntzak Ordu kopurua: 6 - Koordinazio teknikorako mahaia - Oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea + osasun etxea - Indarkeria matxisten fenomenoaren tamaina: tipologiak, testuinguruak, adierazpenak. - Indarkeria matxisten dimentsioak: Dimentsio estrukturala: indarkeria matxistak eta gizarte bazterketa. Indarkeria sinbolikoak: emakumeen gorputzak gauza bihurtzea eta hipersexualizatzea. Bortxaketaren kultura. - Genero sozializazioaren eta interseksionalitatearen eragina. - Berriozarko protokoloa: jarduera koordinatu eta eraginkorrerako esparrua. - Komunitatean ekiteko gakoak. Prebentzioa eta detekzioa.

	6. Bizirik atera direnen eskubideak: bizirik atera direnei laguntzeko zerbitzuak eta baliabideak.
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Ordu kopurua: 6 - Koordinazio teknikorako mahaia - Oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea + osasun etxea 7. Indarkeria matxisten fenomenoaren tamaina: tipologiak, testuinguruak, adierazpenak. 8. Indarkeria matxisten dimentsioak: Dimentsio estrukturala: indarkeria matxistak eta gizarte bazterketa. Indarkeria sinbolikoak: emakumeen gorputzak gauza bihurtzea eta hipersexualizatzea. Bortxaketaren kultura. 9. Genero sozializazioaren eta interseksionalitatearen eragina. 10. Berriozarko protokoloa: jarduera koordinatu eta eraginkorrerako esparrua. 11. Komunitatean ekiteko gakoak. Prebentzioa eta detekzioa. 12. Bizirik atera direnen eskubideak: bizirik atera direnei laguntzeko zerbitzuak eta baliabideak
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Formazioak garaiz planifikatu eta gogorazpena bidali.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Mahaia osatzen duten pertsonen oso prestakuntza maila desberdina dute. Batzuetan, zaila da pertsona guztiak bertaratu daitezen koordinatzea eta data bat ezartzea.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Txosnen, talde feministaren eta udaltzaingoaren arteko koordinazioa. • Talde feministarekin eta Berriozarko elkarteekin koordinatu gara M8ko eta A25eko elkarretaratzeak antolatzeko.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Bideratzeak berdintasun zerbitzuan zentralizatzea, hark baloratzen baititu bideratzeak eta ematen baitie hitzordua.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA

Bortzirietako Makomunitatea

I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak
Kanpaineek estrategia komunikatiboa dute eskualdeko eragile guztiengana iristeko.
 - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez
“Benetako desberdintasuna, justizia egiteke” lelopean, hainbat jarduera dituen programazioa antolatu da.
 - A25 kanpaina ☒Bai ☐Ez
“Indarkeria matxista digitalak benetako ondorioak ditu” lelopean, hainbat jarduera dituen programazioa antolatu da.
 - Jaiak ☒Bai ☐Ez
Nafarroako Gobernuaren tratu onen aldeko kanpaina zabaldu da 5 herrietan (jaietako egitaraua, olana, sare sozialak). 5 herrietako jaietan puntu moreak jarri dira, ordutegi mugatuarekin.
 - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna
☐ Bai ☒ Ez
 - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna
☐ Bai ☒ Ez
- Beste kanpaina batzuk ☒Bai ☐Ez
Gaia: M17 (NABI) E28 (NABI) eta urriaren 15a
(“Landa eremuko emakumeak, Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera”)

Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☒ Bai ☐ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea <i>Bortzirietako emakumeen kontrako indarkeria eta tokiko erantzunaren diagnostikoa. Laguntza teknikoa:</i> - Ikergaia <i>Emakumeen kontrako indarkeria (EKI) Bortzirietan</i>
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	- Bortzirietako Berdintasun Planean (2023-2027) jasotzen den bezala, uda ondotik hasi gara emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eskualdeko lehen koordinazio protokoloa egiten. Horretarako, prestakuntza eta ikerketa feministan ibilbide luzea duen Emagin elkartearen laguntza teknikoa jaso dugu. Prozesuak hainbat fase ditu: - Eskualdeko diagnostikoa egitea - Diagnostikoaren emaitzak aurkeztea eta prestakuntza - Tokiko koordinazio protokoloa egitea - Erantzun publikorako protokoloa egitea - Protokoloaren konpromiso formala - Komunikazioa eta sozializazioa Txosten hau egiteko unean, “Emakumeen kontrako indarkeria eta tokiko erantzuna Bortzirietan” diagnostikoaren emaitzak aurkeztu berri dizkiegu eskualdeko ordezkari politikoei eta profesionalei. Prozesu osoa 2026an burutzea aurreikusten da. - Berdintasun teknikarien taldeak egindako kanpainen bertsio “irakurterraza”.

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Parte hartze txikia herritarrak eta kolektiboak sentsibilizatzeko antolatutako saioetan. Kolektibo guztiak inplikatzearen garrantzia ikusten da, baina baita horren zailtasuna ere. • Puntu moreei eta haien eraginkortasunari buruzko hausnarketa. Puntualki informatu eta oso ordutegi mugatuan eman dute arreta, baina hainbat kolektiborentzat (politikari, langile, jaietako batzorde, ostalaritza, kultura eragile, kirol elkarte eta abarrentzat) indarkeria matxistaren aurkako prestakuntza plan integral bat behar dela ikusten dut. Bide horrek baliabide ekonomikoak eta hainbat urtetako plangintza beharko ditu. <u>Zailtasuna</u>: Plan hori 5 toki erakundetan gauzatzeko konplexutasuna, bakoitzak bere egitura eta errealitateak dituelako. Eraginkorragoa izateko eta parte hartzea ziurtatzeko, plana hainbat eragile sozial eta politikoren artean adostu beharko zen. • “Diagnostikoa: Emakumeen kontrako indarkeria eta tokiko erantzuna Bortzirietan”. Indarkeriaren tokiko erantzunari buruzko diagnostikoa egitea funtsezkoa da baliabide bakoitza nola dabilen jakiteko eta horiek hobetzeko oztopoak eta hutsuneak identifikatzeko.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	○ Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago aholkularitza psikologikorik? ☒ Bai ☒ Ez <i>Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan indarkeria matxista jasaten duten edo jasan duten emakumeentzako gunea eskaintzen da. Gune iraunkor hori eskualdeko emakumeentzako erreferentzia eta etengabeko arreta gune izateko sortu da, eta izaera hezitzailea, bizipenezkoa eta terapeutikoa uztartzen ditu.</i>

Protokoloak	• Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☐ Bai ☒ Ez <i>Aurreko atalean adierazi den bezala, Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko lehenengo koordinazio protokoloa prestatzen ari gara</i> Sinadura data: ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez 2026rako aurreikusita • Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☒ Ez <i>Eraso sexisten aurkako mahaiak deitu dira Bortzirietako bost herrietan, protokoloak agintzen duen bezala.</i> • Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez • Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Adibidez: desgaitasuna, hizkuntza oztopoak, adingabeak eta abar dituzten emakumeentzako arreta. • Adingabeak zaintzeko zerbitzua eta emakumeentzako <u>gune iraunkorrera</u> joateko garraioa eskaintzen dira. • Baztan, Malerreka eta Bortzirietako berdintasun zerbitzuen arteko koordinazio etengabea. Baliabideak planifikatzea eta optimizatzea.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Bortzirietan emakumeek baliabide publikoetarako sarbide mugatuagoa dute, Iruñean pilotzen baitira. Beraz, eta, gainera, desgaitasunen bat duten emakumeek, hizkuntza oztopoak dituztenek, adingabeek, ibilgailurik gabekoek eta abarrek baliabideak erabiltzeko zailtasun handiagoa dute.

	• Salatzeko orduan zailtasun handiagoa, “zer esanen dute” dela-eta. • Adineko emakumeak: indarkeriaren kronifikatzea eta detekzio falta. • <u>OGZ diagnostikoaren emaitza batzuk:</u> ○ Ez dago EKIraiko arduradun espezifikorik. ○ Ez dago prozedura zehatzik. ○ Koordinazio esparru iraunkorra falta da. ○ EKI kasuak artatzeko tresnak falta dira. ○ OGZek lan gehiegi dute eta denbora falta da. ○ Ez dago informazio erregistrorik. ○ Baliabideak gainezka daude eta eskakizunak zorrotzak dira. ○ OGZen txostena osatzeko irizpide teknikoak falta dira. ○ Gaineke erakundeen arreta eta mekanismoak falta dira. ○ Emakume zaurgarriagoen (adinekoen eta etxeko langileen) kasuak detektatzeko zailtasunak. ○ Etxebizitza. • <u>Hobetzeko proposamenak:</u> ○ Prestakuntza eta tresnak. ○ Esku-hartzeak egiteko lan denbora gehiago. ○ ○ Prebentzio lanetarako denbora gehiago. • OSASUNA: ○ Barne protokoloen inguruko prestakuntza eta ezagutza falta: prestakuntza borondatezkoa da, eta ez sistematizatua. ○ EKI kasuak, susmoak, adingabeen kasuak eta abar detektatzeko tresna argi eta eraginkorrak falta dira. ○ Koordinaziorako hutsunea. • <u>Hobetzeko proposamenak:</u> ○ Osasun langile guztientzako nahitaezko prestakuntza ezartzea.
--	--

	○ Osasun etxe eta larrialdi zentroetarako protokolo operatibo argi eta irisgarri bat garatzea. ○ Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko dagoen protokoloa ezagutaraztea; berariazko ibilbide bat prestatzea eta detekziorako eta babeserako koordinazioa. ○ Koordinaziorako esparru orokorra ezartzea. ○ Hizkuntza zerbitzuen kontzientzia hartzea eta erabiltzea normalizatzea. ○ Osasun etxera iristen diren langile berriei modu egokian helaraztea prozesu honi buruzko informazio guztia. ● POLIZIAREN ARLOAN: ○ Beste erakunde batzuekiko koordinazioa oso mugatua eta puntuala da. ○ Ingurutik sumatzen da zailagoa dela polizia etxera hurbiltzea emakumeen kontrako indarkeria salatzeke. ○ Kasuen ikusgarritasuna mugatuagoa da, etxean konpondu beharreko gaiak omen direlako, zama sozialarengatik. ○ Etxebizitza tipologia isolatuak. ● <u>Hobetzeko proposamenak:</u> beste zerbitzu batzuekin koordinatzea, polizia agente guztiei EKIn inguruko prestakuntza gehiago ematea. ● GIBOAT: ○ Zenbait zerbitzu espezializatu gainezka daude, batez ere arlo psikosozialean, eta itxaron zerrenda luzeak dituzte arreta psikologikoa edo hezkuntzakoa jasotzeko. ○ SIAIZ ez da zerbitzua emateko lekuz mugitzen, eta, beraz, GIBOATek gainezka egiten du. ○ Bortzirietan emakume migratu gutxi artatzen dira GIBOAT baliabidean, beraz, emakume horien egoeran jarri beharko litzateke arreta: baliabide falta, hizkuntzarekiko zailtasunak, familia edo gizarte ingurunerik eza...
--	--

	• Hobetzeko proposamenak: gure eskualdeko GIBOATen itxaron zerrendarekin akitzea eta SIAIZ zerbitzua emateko mugitzea. Prebentzioan eta sentsibilizazioan lanean jarraitzeko beharra azpimarratzen dugu. • ARLO JUDIZIALA hobetzeko proposamena: Aholkularitza juridiko espezializatua behar da, genero ikuspegia eta ELJEZek eskatzen duena baino prestakuntza handiagoa dituen. Ibilbide judizial osoan laguntza, informazioa eta babesa behar bezala jasoko dutelako bermeak sendotzeko beharraz hausnartu behar dugu, baita emakumeen suspertze prozesuei modu egokiagoan erantzunen dieten erreparazio mekanismo gehiago garatzeko beharraz ere. Premiazkoa da baliabideak zonara hurbiltzea eta indartzea, eta arreta deszentralizatzea, eta horretarako kasuak hautematen eta artatzen dituztenen prestakuntza hobetu behar da. Helburua arreta presentziala eta kalitatezkoa bermatzea da, eskubide berdintasuna eta genero indarkeria jasan duten biktimen erreparazio integrala bermatzeko. Une honetan, balorazio ona duten zerbitzu espezializatu batzuk dauden arren, oraindik agerian gelditzen da erakundeek erantzun desegokia ematen diotela genero indarkeriari polizia-, gizarte- eta justizia-esparruetan; horrek mesfidantza sistemikoa handitzen du, eta legezko ekintzak hasi edo mantentzeko erresistentzia indartzen du.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua: - IRUÑEKO UDALA: Gazteak eta harreman afektibo-sexualak eremu komunitarioan. Irailaren 24an, 09:30-14:00. - NUKF: Ikastaro berezitua - 3119 - Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak. Datak: Maiatzaren 7 eta 21ean; 11:00-14:00.

	- NUKF: 3123 Nola egin berdintasunean eragin positiboa izanen duten arauak. Talde teknikoei laguntzeko gakoak. Data: Ekainaren 10, 11 eta 19an; 10ean 9:00-14:00; 11 eta 19an 2,5 orduko online saioak. - NABI: Nafarroako emakume gazteen kontrako sexu indarkeriari buruzko I. azterketa. Data: Urtarrilaren 27an 12:00etan (2 ordu). - JAUME I.a UNIBERTSITATEA Berdintasun agente gisa espezializatzeko diploma (825 ordu online). - NUKF: Toki erakundeen politika publikoetako berdintasunari eta genero ikuspegiari buruzko oinarritzkoa. Online (EUSKARAZ). Noiz: urriaren 27tik azaroaren 30era (10 ordu). - NUKF: Genero indarkeriari buruzko oinarritzkoa. Online (EUSKARAZ). Noiz: urriaren 27tik azaroaren 30era (10 ordu).
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera. • NABIren eta Gobernuaren Ordezkaritzaren prestakuntza eskaintzen da (ez dugu izena eman duten pertsonen daturik). • Gainera, NUKFen prestakuntza erregularra eskaintzen da (izena eman eta horren berri eman didaten pertsonen datuak ematen ditut). - Toki erakundeen politika publikoetan berdintasuna eta genero ikuspegia lantzeko oinarritzko ikastaroa. Online. 10 ordu. 2 emakume. - Genero indarkeriari buruzko oinarritzko ikastaroa. Online. 10 ordu. Emakume bat. - Kontratazioetan eta dirulaguntzetan genero baldintzak txertatzeari buruzko online ikastaroa. 15 ordu. Emakume eta gizon bana. • Komunikazio inklusiboa, berdintasun zerbitzuak antolatua Bortzirietako toki entitateetako langileentzat: Maiatzak 8 eta 13an.

	Lesakan saio bera eskaini dute, bakoitza 4 ordukoa. 20 partaide guztira: 5 gizon eta 15 emakume.
Berdintasun teknikariak (emakumezkoa) antolatutako prestakuntza	Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako baliabideen aurkezpena, NABI, GIBOAT eta SIAIZen eskutik. 2025eko urtarrilaren 10ean, 12:30etik 14:00etara, Doneztebeko osasun etxean. Hiru eskualdeetako osasun eta gizarte zerbitzuetako langileak, poliziak eta berdintasun teknikariak bertaratu dira. Berdintasun zerbitzuak komunikazioa zabaltzen lagundu du eta NABIk kudeatu du izen ematea. Familia ingurunean indarkeria bikarioa eta haurren kontrako tratu txarrak detektatzea eta horiei heltzea. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako berdintasun zerbitzuek eta gizarte zerbitzuek antolatuta. <u>Online saio teorikoa BOGAN Prestakuntzarekin</u> Iraupena: 2 ordu. Modalitatea: Online Haurrei eta genero indarkeriari buruzko estatu mailako eta Nafarroako lege esparrua ezagutzea. Indarkeria bikarioaren ezaugarriak ulertzea. Indarkeria bikarioko egoerak identifikatzea. Ikuspegi berezia hezkuntza sektorearen prestakuntzan. <u>Online saioa Anne Garmendiarekin (eskualdeko profesionalarekin)</u> Formatua: Bideoa ikusteko dago. Haurrengan tratu txarrak goiz detektatzeko tresna bat aurkezten da eta nola erabiltzen den azaldu. Jarraibide praktikoak ematen dizkie hezkuntzako langileei (orientatzaile eta irakasleei). Adierazle gakoak eta jokaera-adierazle korrelazioak identifikatzea (<i>red flags</i>). Beste erakunde batzuekin koordinatzeko txostenak egiteko jarraibideak. <u>Kasu praktikoak, saio bat eremu bakoitzeko: fluxugrama, eskuliburua, dokumentuak eta ibilbidea (HNLTK emana)</u>

	Bortzirietako saioa 9:30 - 11:00 Malerrekako saioa 12:00 - 13:30 Baztango saioa 9:30 - 11:00 Kasu praktikoen bidez fluxugramak aurkeztu eta aztertzea. Sareko eragile/erakunde bakoitzaren erantzukizunen definizioa. Funtsezko galderei erantzutea: zer lantzen da Sarean? zer espero da Sarearengandik? Kasu baten jarraipen osoa.
	Prozesu osoan 28 profesionalek hartu dute parte. 27 emakumek eta gizon batek (hiru eskualdeetan hainbat profesional partekatzen dira) Haietatik 10 Bortzirietakoak dira. 9 emakume eta gizon bat. ----- • "Indarkeria matxistak jaietan", herritar zein kolektiboentzako sentsibilizazio, prebentzio eta esku-hartzearen esparruan. ○ Etxalar: Ekainaren 6an, ostirala, 18:00etan. 4 emakume eta gizon bat. ○ Arantza: Urriaren 7an, larunbata, 10:30etan. 6 emakume eta 2 gizon. ○ Lesaka: Ekainaren 13an, larunbata, 18:00etan. 5 emakume. ○ Igantzi: Ekainaren 14an, larunbata, 10:30etan. 0 pertsona ○ Bera: Ekainaren 20an, ostirala, 18:00etan. 3 emakume eta gizon bat. ○ 4 emakume eta gizon bat. • Ziberindarkeria matxistak eta haiei aurre egiteko estrategiak. Data: Abenduaren 16an, 18:00etan (2 ordu). 6 pertsona (5 emakume eta gizon bat)
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Hiru eskualdeak (Baztan, Malerreka eta Bortziria) koordinatzea, zerbitzuentzako prestakuntza elkarrekin antolatzeke.

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	• Toki erakundeetako langileek eta eskualdeko gainerako eragileek kostata hartzen dute parte. • Foru Diputazioko langileak anitz mugitzen dira. • Toki entitateko eta Foru Diputazioko langileei EKlren inguruko prestakuntza falta zaie. • Parte hartze txikia herritarrak eta kolektiboak sensibilizatzeko antolatutako saioetan. • Hobetzeko proposamenak: Nafarroako Gobernuako departamentu bakoitzak EKlren inguruan antolatzen duen nahitaezko prestakuntza handitzea.
---	--

IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak: Ez • Lankidetza proiektuak: Koordinazioa eta harremana GIBOATEkin eta SIAIZekin kasu batzuetarako. • Beste batzuk
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Eskualdeko emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko tokiko I. koordinazio protokoloa prestatzen ari gara
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Diagnostikoan eta zerbitzu guztietan ikusi da EKlren DETEKZIOAN, BABESEAN, ARRETAN ETA ERREPARAZIOAN parte hartzen duten eragile guztien arteko koordinazioa falta eta behar dela. Ez dago koordinaziorik; beraz, DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA atalean sartu dira zailtasunak eta hobetzeko proposamenak, eremuaren arabera

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA

Cadreita-Valtierra eskualdea

I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez - A25 kanpaina ☒Bai ☐Ez - Jaiak ☒Bai ☐Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Beste kanpaina batzuk ☐Bai ☐Ez Gaia:Urriaren 15a
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☒Bai ☐Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea: Ez dut gogoan - Ikergaia: indarkeria instituzionala emakume arrazializatuengan
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Jai eremu seguruagoak: Emakumeen elkarteak puntu moreen buru izateko lan egin genuen, zerbitzuen kostuak igo zirelako; alternatibak bilatu dira, hala nola interes eragileak eta aisialdirako lokalak prestatzea. Aldaketa guztiak garestiak direnez eta erresistentziak sortzen dituztenez, ikuspegi berri horren emaitza ebaluatzeke dago. Indarkeriatik aldendutako maskulinitateen inguruko hitzaldiak.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Jai eremuak; berdintasun teknikariak bakarrik du erantzukizuna. Hitzaldiak: Parte hartzea txikia da
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	Badago aholkularitza juridikorik? ☐Bai ☒Ez

	○ Badago aholkularitza psikologikorik? ☐ Bai ☒ Ez
Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☐ Bai ☒ Ez Sinadura data: ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☐ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☐ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	- Tokiko koordinazio protokoloa egiten ari gara. - Prestakuntza aurreikusten dugu, eta indarkeria bikarioaren adierazpenak landuko ditugu.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Udalerrri mankomunatuak direnez, zailtasunak daude eskumenen kudeaketan eta mahai operatiboak sortzeko erabakian. - Ez da modu eraginkorrean bideratzen baliabide espezializatueta, ez dute behar duten arreta jasotzen. Adingabeen kontrako sexu indarkeriak erreparaziorako esku-hartzerik gabe gelditzen dira, eta gutxi laguntzen zaie; beraz, batzuetan biktima bihurtzen dira berriz ere. (hainbat erasotzaileen biktima adingabeak ditugu) eta erasotzaile adingabeek ez dute programa espezifikorik, jarraipenik gabe gelditzen dira. - Langileek ez dute trebakuntzarik esku-hartzeak jardunbide egokien bidez egiteko, bigarren mailako biktimizazioa saihesteko.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua - Genero indarkerian diziplinaratean esku hartzeko masterra VIU 60ETC - Giza salerosketari buruzko tailerra 10 ordu

Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera Prestakuntza batzuk teknikarien trebakuntzarako dira, genero indarkeria jasaten duten emakumeak detektatzeko eta haiei laguntzeko, eta helburu argi bat dauka: jardunbide egokiak erabiltzea eta haurren ikuspegia kontuan hartzea. Genero indarkeriaren biktima diren adingabeak amarekiko independenteak diren eskubidedun objektu eta subjektu gisa ulertuz. 10 ordu: 8 emakume eta 2 gizon
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Beharrak detektatzeko fasea.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Prestakuntzarako orduak zehaztea oso zaila da, pertsonak gainezka daudelako. Gainera, beste prestakuntza mota bati ematen diote lehentasuna, eta ez da beharrezko edo derrigorrezkotzat hartzen.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoa: arlo arteko mahai teknikoa, OGZMko teknikariek osatua • Lankidetza proiektuak; mankomunitateko erabiltzaileen diagnostikoa egitea aurreikusten da • Beste batzuk:
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Emakume arrazializatuak eta migratzaileak ez daude antolatuta. Haien aniztasuna ordezkatu eta bilduko duen elkarte bat sortu behar da, haien errealitatea hurbiltzeko eta ezberdintasun arrakala txikitzeko.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Emakume arrazializatuen faktore interseksionalak agerian gelditzen dira ez dutelako baliabideekiko konfiantzarik. Sumatzen da tratatzen diren kasuak icebergaren punta baino ez direla.

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Corellako udala	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☒ Bai ☐ Ez Gaia: Urriaren 15a, “Landa eremuko emakumearen Nazioarteko Eguna”
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	2025ean, bultzada handia eman zitzaion “Puntu moreen sarea” izeneko partaidetza komunitarioko sarea inplementatzeari. Sare hori 2024an sortu zen, behar zuten pertsonen genero indarkeria eta eraso sexisten inguruko arretaz arduratzen diren baliabide espezializatuak buruzko informazioa emateko, urte osoan zehar eta, bereziki, aisialdi eremuan.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Eremu hori sendotu behar da; horretarako, prestakuntza bilerak egin behar dira eta sare sendoago baten parte izan daitezen lortu behar da.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	

Adi	○ Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago aholkularitza psikologikorik? ☐ Bai ☒ Ez
Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Sinadura data: 2021-02-11. ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒ Bai ☐ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Taldeko jarduerak egiten dira, oinarritzko gizarte zerbitzuekin eta osasun etxearekin koordinatuta, gizarte zaurgarritasun berezia duten emakumeei zuzenduta (emakume migratzaileei, adineko emakumeei, ijitoei, ama gazteei...), eta psikologian eta genero indarkeria gaian espezializatutako laguntza teknika ematen zaie.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Gizarte zaurgarritasuneko herritarrak direnez, zaila da aurreikusitako formazio guztietara joan daitezela, eta, beraz, erreparazio prozesuak eten egiten dira batzuetan.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua - Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak. (6 ordu) - Genero indarkeriari buruzko oinarritzkoa. Online. (10 ordu)
Erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza Tokikoa	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera Toki entitatean genero transbertsalitatearen estrategia txertatzeko trebakuntza politikoa. /3 ordu/ berdintasunaren transbertsalitate politikoa/ 4 gizon eta 2 emakume.

Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Toki erakundeko langile guztiek nahitaez bete behar duten urteroko prestakuntza programazioa sortu dugu.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	2025. urtean online prestakuntza eskaini da, NUKFek berdintasunaren eta genero indarkeriaren inguruan eskaintzen duen oinarritzko programazioaren bidez. Administrazioan lan gehiegi dagoenez, ez zaio lehentasunik ematen berdintasuneko prestakuntza egiteari, eta, beraz, ez dute prestakuntzan beren kabuz izena ematen.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak. Nafarroako berdintasun teknikarien taldean parte hartu dugu. • Beste batzuk. ○ “Corellako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean esku- hartzea koordinatzeko tokiko protokoloari” buruzko informazio hitzaldia, Corellako osasun etxean. ○ Puntu moreen sarearen eta sarea osatzen duten baliabide zein erakundeen arteko prestakuntza- eta informazio-bilera. ○ Tokiko koordinazio protokoloaren tokiko koordinazio mahaia, urtean bi saio.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	• 2025eko ekainaren 30ean, Polizia Nazionaleko, Guardia Zibileko, Foruzaingoko eta Corellako udaltzaingoko arduradunek CORELLAN GENERO INDARKERIA EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEI POLIZIA ARRETA EMATEKO LANKIDETZA PROTOKOLOA sinatu dute. • Corellako jaien aurreko segurtasun batzordean parte hartu genuen, puntu more espezializatuak ezartzeari buruzko informazioa emateko eta ezartzea bera koordinatzeko. • Tokiko koordinazio mahaia osatzen duten baliabideentzako prestakuntza guneak sortzea proposatu da, eta bereziki Corellako ikastetxeetako ordezkariak bertaratzea nahi da.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Puntu moreen sarearentzat antolatutako ikastaroetan parte hartze txikia izan da, erakunde partaideek ordutegi desberdinak dituztelako.

**INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025**

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Eguesibarko udala	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☐ Bai ☒ Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☐ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikerketa
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Puntu moreen aurka agertu dira batzuk. Espazio horiei buruz hausnartu behar dago, eta nolabait berregin
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☐ Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☒ Bai ☐ Ez

Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: 2022 - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☐Bai ☐Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Adibidez: desgaitasuna, hizkuntza oztopoak, adingabeak eta abar dituzten emakumeentzako arreta.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	- Mahaiak osatzen dituzten beste arlo/zerbitzu batzuei deitzeko orduan, berdintasun arloak legitimitate gutxi du. - Protokoloen jarduketa prozeduretan baliabideak aurreikusten dira, baina ez dira bitartekoak ematen. Adibidez, lan ordutegitik kanpoko kasuetan, ez dago NABlrekin larrialdietan harremanetan jartzeko modurik. Udalekoak horretarako prest egonen garela espero da, baina ez dago zaintza zerbitzu antolaturik edo halakorik. - Prozeduran ezarritako denborak eta denbora "errealak" bateratzeko zailtasuna udalaren erantzun publikoa artikulatzeko orduan. Adibidez, azken hilketa ostiral batean gertatu zen, eta astelehenean aitortu zen genero indarkeriatzat. Eta prentsak lehen minututik presionatzen ditu politikariak.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua: Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren inguruko, eta sexu askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako jokabideen inguruko prestakuntza 2 ordu.

**INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025**

Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren inguruko, eta sexu askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako jokabideen inguruko prestakuntza. 2 ordu. Politikariak: 16 (6 emakume eta 7 gizon) Langileak: 30 (22 emakume eta 8 gizon)
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Politikarientzako prestakuntza berdintasun batzordean sartu zen, eta horrek erraztu egin zuen bertaratzea.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak • Lankidetza proiektuak • Beste batzuk: ○ Barne mailako (udaleko) koordinazioa OGZekin ○ Berdintasun teknikarien sarearen bidez, beste toki erakunde batzuekin, NUKFekin eta NABIrekin koordinatzea
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA

Lizarrako udala

I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☒ Bai ☐ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☐ Bai ☒ Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Adierazpen instituzionala modu irakurterazean egin zen, irisgarritasuna hobetzeko.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Pertsona bakarreko unitateek lan karga handia dute. Ez dute administrazio langilerik eta toki erakundeak, NUKFek eta NABIk eskatutako lanari aurre egin behar diote.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☒ Bai ☐ Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☒ Bai ☐ Ez

Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☒Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☒Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Adibidez: desgaitasuna, hizkuntza oztopoak, adingabeak eta abar dituzten emakumeentzako arreta.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	NABik bultzatutako III. akordiotik datozen protokoloak dira, baina NABik ez du tresnarik ematen protokolo horiek gauzatzeko: adibidez, ez du jardunbide egokirik ematen, ez txosten homogeneoen eredurik zer datu bildu behar diren jakiteko, ez mandaturik, datuok bateratzeko, zer datu eta nola jaso behar diren. Gogoan izan pertsona bakarrekoak garela, eta ez dugula inolako ahalmenik mahaian esertzen diren profesionalen aurrean, eta horrek zaildu egiten duela mahaian lidergo lanak egitea.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua Berdintasun teknikariak UNEDeko Giza eskubideen babes juridikoari buruzko masterra, NUPeko genero adituen titulua eta NUPeko Genero, Emakume eta Berdintasun Gaietako Masterra ditu. Horrez gain, berdintasunaren eta indarkeriaren inguruko 300 ordu baino gehiago egin ditu ikastarotan. Aurtan, 2025ean, indarkeriaren inguruko ikastaro hauek egin ditu: Mikrozedentziala: “Erakunde barruko urraketen detekzioa, esku-hartzea eta koordinazio instituzionala”, UNIR (50 ordu).

	• Genero berdintasuna: aplikazio praktikoa arlo juridikoan. Berdintasun Ministerioa (75 ordu). Gainera, emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko argitalpen eta esku-hartze hauek egin ditu 2025ean: • Emakumeen kontrako indarkeria ekonomikoaren inguruko jardunbide egokien estatu mailako I. topaketaren konferentzia. Elikadura pentsioa nahita ez ordaintzearen ondorioengatik esku-hartzea, generoaren ikuspegitik, 2025eko martxoaren 6an. Isadora Duncan fundazioa. • Nafarroako Parlamentuko lehendakaritza eta berdintasun batzordean kontu hartu zuen, 2025eko martxoaren 26an, eta txosten hau aurkeztu: “Elikadura pentsioa nahita ez ordaintzearen errealitateari buruzko analisisia eta pentsioak ez ordaintzeagatiko aurrerakinen berme funtsa aldatzeko proposamena, indarkeria ekonomikoaren aurkako babesaren esparruan”. • “Genero indarkeria ekonomikoa ikusarazteko eta prebenitzeko gakoak” gidaren aurkezpena: Gida labor bat. COMFIN, Iruñeko Emakumeen Etxea, 2025eko azaroaren 20an. • Prestakuntza: Elikadura pentsioa nahita ez ordaintzea, genero indarkeria ekonomikoa. Elizondoko udala, 2025eko azaroaren 27an. • “Genero indarkeria ekonomikoa ikusarazteko eta prebenitzeko gakoak” gidaren aurkezpena: Gida labor bat. Ablitasen, 2025eko azaroaren 28an. • Gida: Genero indarkeria ekonomikoa ikusarazteko eta prebenitzeko gakoak: Gida labor bat. 2025eko azaroa. https://comfin.org/file/repository/EUSKERA_GUI_A_VGE_CONTRA_LA_VIOLENCIA_ECONOMICA_2_15 x 215 mm 5 .pdf • Txostena: “Elikadura pentsioa nahita ez ordaintzearen errealitateari buruzko analisisia eta pentsioak ez ordaintzeagatiko aurrerakinen berme funtsa aldatzeko proposamena, indarkeria ekonomikoaren aurkako babesaren esparruan”. COMFINek editatua. https://www.comfin.org/file/repository/Informe_propuesta_modificacion_FOGAPA_COMFIN_lxa_xi_Perez_pacto.pdf
--	---

Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera: Tokiko koordinazio mahaiarendako prestakuntza, indarkeria jasaten duten emakumeei arreta ematen esku hartzen duten profesionalen zuzendua: 4 orduko 3 saio, 9:30-13:30 • 1. saioko edukia: Genero indarkerian esku hartzeko ikuspuntuak eta oinarriak: ○ Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko esku-hartzearen ikuspegia: printzipio gidariak eta jardunbide egokiak. ○ Lehen kontsulta edo elkarriketa: hasierako detekzioarako, komunikazioarako eta koordinazioarako funtsezko estrategiak. • Baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen indarkeria sexistako egoerak hasieratik detektatzea eta haiei heltzea. ○ Esku-hartzea egokitzea emakume bakoitzaren prozesu pertsonalera egokitzea, haren uneko egoeraren arabera. ○ Lan orriaren landutako alderdiak: Kasua identifikatzea eta hasierako ebaluazioa (beharrak, indarguneak eta laguntza sareak). • 2. saioko edukia: Esku-hartze eta balorazio integrala: ○ Berrikustea eta birpentsatzea zein den emakumeen egoeraren eta beharren balorazioa esku-hartzeetan. ○ Genero indarkeriako kasu konplexuen ezaugarriak eta erronkak. ○ Jarraipena epe luzerako estrategia gisa: tresnak eta helburuak. ○ Lan orrian sakontzea: funtsezko eragileak, eskura dauden baliabideak eta jarraipen neurriak txertatzea. ○ Jardun profesionalen egoera paradoxikoei buruzko eztabaida, eta haiei nola egin aurre ikuspegi etiko eta eraginkor batetik. • 3. saioko edukia: Lan orria diseinatzea eta baliozkotzea: ○ Aztertutako kasuetan oinarritutako lan orri baten diseinu integrala: helburuak, ekintza zehatzak, rolak eta epeak. ○ Proposatutako estrategiak baliozkotzea, kasu praktikoen bidez.
---	---

	○ Sarean lan egiteko ikuspegia txertatzea: nola eraiki esku-hartze integralak eta parte-hartzaileak. ○ Taldeak lan orriak aurkeztu eta atzeraelikatu ditu. ○ Erakunde arteko koordinazioa sendotzeko ondorioak eta orientabideak. Prestakuntza egitea: • 1. SAIOA (2025/04/28). 2025eko apirilaren 28an, “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko jarduketaren koordinazioa optimizatzeari” buruzko prestakuntza egin zen, eta 24 pertsonak hartu zuten parte (gizon batek eta 23 emakumek). Prestakuntza horren inguruko inkestetatik 21 erantzun ziren guztira, eta nota orokorra 3,62/4 (9,04) izan zen. Lortutako datuetatik ondorioztatzen da % 28,57ri interesgarria zaiola eta % 71,43ri oso interesgarria. Prestakuntza lanerako baliagarria dela uste du % 52,38k, eta oso baliagarria dela % 47,62k. Landutako ikuspegiei dagokionez, % 28,57ri interesgarria zaio eta % 71,43ri oso interesgarria. Prestatzaileari dagokionez, bertaratutakoen % 23,80 kontent dago, eta % 76,20 oso kontent. Espektatibak betetzeari dagokionez, % 4,74rentzat espektatibak gutxi edo oso gutxi bete ziren, % 52,39rentzat espero bezala bete ziren eta % 42,87rentzat asko. Gaiei eskainitako denborari dagokionez, % 4,74ri oso desagokia iruditzen zaio, % 33,34ri ez oso egokia, % 61,92ri egokia eta % 16,66ri oso egokia. Balorazio orokorrari dagokionez, % 28,57k balorazio ona eman zion prestakuntzari, eta % 71,43k oso balorazio ona. • 2. SAIOA (2025/06/05): 24 pertsona bertaratu ziren prestakuntzara (22 emakume eta 2 gizon). Ez zen prestakuntza horri buruzko inkestarik egin, une hartan Lizarrako udaleko berdintasun arloak ez zuelako kudeaketaz arduratzen zen berdintasun teknikaririk. • 3. SAIOA (2025/09/29): 2025eko irailaren 29an, “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko jarduketaren koordinazioa optimizatzeari” buruzko hirugarren prestakuntza egin zen, eta
--	--

	20 pertsonak hartu zuten parte (gizon batek eta 28 emakumek). Prestakuntza horren inguruko inkestetatik 15 erantzun ziren guztira, eta batez besteko nota 3,46/4 (8,65) izan zen. Lortutako datuetatik ondorioztatzen da % 40ri interesgarria zaiola eta % 60ri oso interesgarria. % 13,33k uste du prestakuntza ez dela baliagarria lanerako, % 53,33k uste du badela, eta % 33,34k oso baliagarria dela. Landutako ikuspegiei dagokionez, % 40ri interesgarria zaio eta % 60ri oso interesgarria. Prestatzaileari dagokionez, bertaratutakoen % 33,33 kontent dago, eta % 66,64 oso kontent. Espektatibak betetzeari dagokionez, % 60rentzat espero bezala bete ziren eta % 40rentzat asko. Gaiei eskainitako denborari dagokionez, % 6,66ri ez oso egokia iruditzen zaio, % 60ri egokia eta % 33,34ri oso egokia. Balorazio orokorrari dagokionez, % 53,33k balorazio ona eman zion prestakuntzari, eta % 46,67k oso balorazio ona. Udaltzaingoaren beste prestakuntza batzuk: • 2025eko martxoaren 26an: Pornografiaren kontsumoak adingabeengan eta gazteengan dituen eraginak prebenitzea • 2025eko maiatzaren 26an: Errespetuzko komunikazioari buruzko jardunaldia • 2025eko ekainaren 19an: Haurren kontrako sexu abusuari (HSA) susmoa dagoenean detektatzea eta jakinaraztea • 2025eko irailaren 15ean: VioGen-2ren bidez arriskuaren baloraziorako eta kudeaketa polizialerako protokoloa • 2025eko azaroaren 19an: Pornografiaren kontsumoak adingabeengan eta gazteengan dituen eraginak • 2025eko azaroaren 21ean: Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko VIII. jardunaldiak • Programa: “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko koordinazioa optimizatzea” • Saio presentzialak: Apirilaren 28an, ekainaren 05ean eta irailaren 29an • Urriaren 16an: “Gizon bortitzak bikote harremanetan” webinarra Hizlaria: Josean Echauri Tijeras
--	---

	• Azaroaren 11n: Emakumeen mutilazio genitalaren inguruko prestakuntza
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Nafarroako Erdialdeko berdintasun arloen arteko koordinazioa (Lizarra, Lizarrerria, Izarbeibar, Nafarroako Erdialdeko Partzuergoa, Tafalla), bai prestakuntzak ez bikoizteko, bai lan ildo bera lantzeko, koordinazio protokoloaren, tokiko koordinazio mahaiaren eta profesionalentzako prestakuntzaren baitan.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak • Lankidetzak proiektuak • Beste batzuk Bai, NEP, TEDER, Izarbeibarko mankomunitatea, Tafallako udala
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Erdialde osoa koordinatzea baliabideak optimizatzeko, homogeneizatzeko eta langile berek ekintzak ez errepikatzeko.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Polizian eta tankerako kargu hierarkikoagoetan sartzeko ahalmenik eza.

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Uharteko udala	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez - A25 kanpaina ☒Bai ☐Ez - Jaiak ☒Bai ☐Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Beste kanpaina batzuk ☐Bai ☐Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐Bai ☒Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Batzuetan zaila da datuak biltzea.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☒Bai ☐Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☐Bai ☒Ez
Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: 2021eko abendua - Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez

	- Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒Bai ☒Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☒Bai ☐Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Adibidez: desgaitasuna, hizkuntza oztopoak, adingabeak eta abar dituzten emakumeentzako arreta. Udaltzaingoaren zerbitzua VioGen sistemari atxikitzeko akordioa (protokoloak sinatzea eta atxikitzea).
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Laguntza psikologikoa emateko baliabiderik eza, baliabideek eskari handia dute. Koordinazio mahaian ez dauden baliabideekin koordinatzea.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua “Genero indarkeria” (online). NAPI, 40 ordu “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako tokiko koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak”. NUKF, 6 ordu
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera “Genero indarkeriarekin hazten diren adingabeak: lege esparrua, ondorioak eta indarkeria bikarioa”. 10 ordu. Gizarte-, polizia-, osasun- eta hezkuntza-arloko baliabideak. Partaideak: 11 emakume eta 3 gizon.
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko Lege Organikoari (gaztelaniaz, LOPIViri) buruzko aholkularitza juridikoko emakumezko abokatuekin saio bat egin genuen. Indarkeria testuinguruetan dauden adingabeei buruzko prestakuntza positiboki baloratu da.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Adingabeen sarean esku hartzen duten profesionalei indarkeriari buruzko prestakuntza espezifikoa falta zaie. Batez ere ziberindarkeriari eta sexu indarkeriari buruzkoa.
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	- Lantalde espezifikoak - Lankidetzak proiektuak - Beste batzuk
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	

INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
--	--

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA

Malerrekako Mankomunitatea

Berdintasun zerbitzua berria da, irailaren 8an sortu zen; beraz, zalantza anitz ditugu. Baztango eta Bortzirietako berdintasun zerbitzuen erantzunak erreferentziazat hartuko ditugu. Aldi berean, aipatutako bi berdintasun zerbitzuek Malerrekako mankomunitateko gizarte zerbitzukoekin koordinazioan lan egin dutenez orain arte, (orain 3 berdintasun zerbitzuak koordinatzen gara) antzeko erantzunak egonen dira.

I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Prebentzioa eta sensibilizazioa	Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez Jaiak ☐ Bai ☒ Ez Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna Bai ☒ Ez Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna Bai ☒ Ez Beste kanpaina batzuk ☒ Bai ☐ Ez Gaia: Oraingoz urriaren 15a bakarrik, Landa eremuko emakumeen nazioarteko eguna.
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikerketa
Ezarritako hobekuntzak, mugarririk eta emaitza aipagarriak	Aipatu dudak bezala, zerbitzua berria izanda, oraindik ez dugu denborarik izan hobekuntzak ezartzeko, mugarririk izateko eta emaitza aipagarriak izateko.

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Herritarren (eta batez ere gazteen) parte hartzea gero eta txikiagoa da prestakuntza eta/edo sentsibilizazio ekintzetan, eta horrek zaildu egiten du ekintzen inpaktua nahi bezalakoa izatea. Feminismoaren eta indarkeria matxisten inguruko gizarte polarizazioak gero eta konplexuagoa egiten du esku-hartzea
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	• Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez • Badago aholkularitza psikologikorik? ☒ Bai ☒ Ez Indarkeria matxistaren biktima diren eta bizirik atera diren emakumeei laguntzeko talde egonkor bat dago jada, profesional musikoterapeuta baten eta gizarte-hezitzaile baten lana konbinatzen dituen (biak emakume biktimei arreta ematen espezializatuak).
Protokoloak	• Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☐ Bai ☒ Ez Sinadura data: ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez • Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Doneztebeko udalak bakarrik dauka protokolo hori eta Malerrekako mankomunitatean berdintasun teknikaria kontratatu aurretik egin zuten, baina kontrataziorako prozesua martxan zegoenean. Protokolo hori Areté Activa aholkularitzarekin egin zen, 5.000 biztanletik beherako eta langileak kontratatzeke baliabiderik ez duten toki erakundeei aholkularitza tekniko eskaintzeko NABik eta Federazioak sinatutako hitzarmenaren baitan. Dena den, ez da zabalduta eta oraindik ez da praktikan jarri. ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez • Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒ Bai ☐ Ez Protokolo hori, aldiz, Oitz, Donamaria, Beintza-Labaein eta Urrozeko udaletan bakarrik egin zuten.

	Lau udal horiek idazkari bera dute eta hark sustatuta onartu zuten.
	Idazkariak NABlren aholkularitza izan zuen dokumentua sortzeko/egiteko. Dena den, ez zaie jakinarazi udaletako langileei eta ez zaie azaldu zein den protokoloa aktibatzekeo prozesua. Hau da, ez da azalpen saiorik egin. ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez • Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐ Bai ☒ Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Garraio eta zaintza zerbitzua eskaintzen zaie genero indarkeriako egoerak pairatu dituzten edo pairatzen dituzten emakumeei, jardueretan edo zerbitzuetan errazago parte hartu ahal izateko (elkarguneetara, laguntza psikologikora, epaitegietara eta abar joateko).

	Bortzirietako, Malerreka/Bertizaranako eta Baztango polizia-, gizarte-, osasun- eta berdintasun-zerbitzuen prestakuntzaren eta esku-hartze indibidual zein kolektiboen koordinazioak anitz optimizatu eta homogeneousatu ditu inguruan lan egiteko moduak, jasotako prestakuntzak berdintzen ari da, eta uste dut eragin handiagoa dutela.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Lehenik eta behin, landa inguruneak eta lurraldearen sakabanatze geografiko handiak desberdintasun nabarmenak sortzen ditu baliabide eta zerbitzu espezializatuetarako sarbidean. Iruñean zerbitzu ugari zentralizatzeak, garraio publikoaren mugarekin eta inguruan dauden mugikortasun zailtasunekin batera, zaildu egiten die emakumeei laguntza psikologikorako, aholkularitza juridikorako, babes baliabideetarako eta prozesu judizialei lotutako baliabideetarako sarbidea eraginkorra izatea. Era berean, argi esan dezakegu lurraldean espezializatutako zerbitzu batzuen presentzia edo irisgarritasuna eskasa dela. Kasu batzuetan, baliabide horiek ez dute eskualdean arreta presentzialik ematen, edo haien esku- hartzea telefono dei baten bidezko kontaktura mugatzen da, eta horrek une garrantzitsuetan orientazio egokia izateko bermeak murrizten ditu; adibide bereizgarri bat salaketa jarri aurretik erabakiak hartzea da.

	Era berean, eskualdean ez da sexu indarkerian espezializatutako arreta zuzena ematen, eta, ondorioz, kasuak beste baliabide zentralizatu batzuetara bideratu behar izaten dira, baina berriz ere Iruñean. Muga horiez gain, hainbat motatako arreta jasotzeko itxaron zerrenda luzeak dituzte hainbat zerbitzu espezializatuk, gainezka daude, batez ere eremu psikosozialean. Egoera horrek emakumeak suspertzeko eta erreparatzeko funtsezko prozesuak atzeratzen ditu, eta bereziki eragiten die landa eremuei, arreta aukerak mugatuagoak baitira. Horrekin batera, detekzioan eta lehen esku-hartzeetan zailtasunak identifikatzen dira, bereziki genero indarkerian edo sexu indarkerian prestakuntza espezifikorik ez duten profesionalak artatzen dituztenean. Lehen arretako zenbait zerbitzutan espezializaziorik ez izateak, batzuetan, zaildu egiten du kasuak behar bezala identifikatzea, ez dira oso esku-hartze doituak egiten eta zenbait emakume alde batera uzten dira, edo erakundeen zirkuituak saihesten dituzte arreta negatiboaren ondoren. Bestalde, toki erakundeek, batez ere landa inguruneetan, baliabide mugatuak dituzte eta ezin dute emakumeek behar duten laguntza integrala bermatu. Udaletik erakundeen arteko koordinaziorako, sentsibilizaziorako eta komunitate laguntzarako ekimenak bultzatzen badira ere, baliabide material eta giza baliabide nahikorik ez dagoenez, zaila izaten da detektatutako beharrei behar bezala erantzutea eta indarrean dagoen araudian aitortutako eskubideak bermatzea. Gainera, "Iparraldeko eremuko eta Iruñerriko" zerbitzu publikoak banatzeko egungo ereduak irisgarritasuna eta lurralde koordinazioa zailtzen ditu. Estaldura eremuaren hedadura geografikoak eta baliabideen zentralizazioak zerbitzu espezializatuen presentzia mugatzen du lurraldean, eta herritarrentzat eskuragarri dagoen zuzeneko arretaren denbora murrizten du; horrek eragin negatiboa du esku-hartzearen kalitatean eta jarraitutasunean.
--	---

	Azkenik, erreparazioaren dimentsioari dagokionez, egungo esparru sozial eta instituzionalean, prozesu judiziala eta zigor penala emakumeen kontrako indarkerien erreparazio sozialerako modu nagusitzat hartzen dela ere aipatu behar da. Hala ere, tokiko zerbitzuek jasotako testigantzek agerian uzten dute, praktikan, prozesu judizialak oso gutxitan izaten direla erreparatzaileak emakumeentzat. Aitzitik, horietako anitzek prozesu luzeak, konplexuak eta emozionalki gogorrak direla komentatzen dute, eta anitzetan sentitzen dute zalantzan jartzen dituztela, gutxi laguntzen dietela edo behar bezala informatzen ez dituztela, eta horrek frustrazioa, higadura eta, kasu batzuetan, erakundeen partetik babesgabetasuna edo birbiktimizazioa sentitzea eragiten die. Errealitate horren ondorioz, ibilbide judizial osoan zehar laguntza eta informazioa emateko bermeak indartzeko beharraz gogoeta egin behar da (ELJEZ eta operadore judizialei prestakuntza emateaz), bai eta emakumeen premiei eta suspertze prozesuei modu egokiagoan erantzunen dieten erreparazio mekanismo zabalagoak garatzeko beharraz ere. Hala, egoerak agerian uzten du landa eremuetan baliabide espezializatuen hornidura indartu behar dela, zerbitzuak deszentralizatu behar direla, detekzioan eta lehen arretan inplikaturako profesionalen prestakuntza hobetu behar dela, eta arreta irisgarria, aurrez aurrekoa eta kalitatezkoa bermatu behar dela, indarkeria matxisten aurrean emakumeen eskubideak berdintasun baldintzetan gauzatu eta kalitatezko erreparazio integrala ahal izateko.
--	---

III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua • NUKF: Ikastaro berezitua - 3119 - Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak. Datak: Maiatzaren 7 eta 21ean; 11:00-14:00. • NUKF: 3123 Nola egin berdintasunean eragin positiboa izanen duten arauak. Talde teknikoei laguntzeko gakoak. • Datak: Ekainaren 10, 11 eta 19an; 10ean 9:00-14:00; 11 eta 19an 2,5 orduko online saioak. • NABI: Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeriak: arreta irisgarri eta inklusiborantz aurrera eginez. Data: Urriaren 1ean, 09:30 - 13:15.
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Langile guztiei bidali zaizkie NUKFek, NABIk, Gobernu Ordezkaritzak edo beste batzuek berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eskainitako ikastaroak, baina ez dakigu nork eman duen izena eta nork parte hartu duen.
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza ORAIN ARTE EGINDAKO PRESTAKUNTZAK BORTZIRIETAKO ETA BAZTANGO BERDINTASUN TEKNIKARIEK ANTOLATU DITUZTE, ETA ELKARREKIN ANTOLATZEN DIRA BORTZIRIETAKO, MALERREKA/BERTIZARANA KO ETA BAZTANGO ZERBITZUENTZAT, lan sareak sortzeko, arreta taldeen esku-hartzea eta ezagutza homogeneizatzeko, eta tokiko 3 erakundeek eskualdean prestakuntzara bideratutako baliabide publikoak	Familia ingurunean indarkeria bikarioa eta haurren kontrako tratu txarrak detektatzea eta horiei heltzea. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako berdintasun zerbitzuek eta gizarte zerbitzuek antolatuta. • Online saio teorikoa BOGAN Prestakuntzarekin Iraupena: 2 ordu. Modalitatea: Online Haurrei eta genero indarkeriari buruzko estatu mailako eta Nafarroako lege esparrua ezagutzea. Indarkeria bikarioaren ezaugarriak ulertzea. Indarkeria bikarioko egoerak identifikatzea. Ikuspegi berezia hezkuntza sektorearen prestakuntzan. • Online saioa Anne Garmendiarekin (eskualdeko profesionalarekin) Formatua: Bideoa ikusteko dago. Haurrengan tratu txarrak goiz detektatzeko tresna bat aurkezten da eta nola erabiltzen den azaldu. Jarraibide praktikoak ematen dizkie hezkuntzako langileei (orientatzaile eta irakasleei). Adierazle gakoak eta jokaera-adierazle korrelazioak identifikatzea (<i>red flags</i>). Beste erakunde batzuekin koordinatzeko txostenak egiteko jarraibideak.

optimizatzeko	• Kasu praktikoak, saio bat eremu bakoitzeko: fluxugrama, eskuliburua, dokumentuak eta ibilbidea (HNLTK emana) ○ Bortzirietako saioa 9:30 - 11:00 ○ Malerreko saioa 12:00 - 13:30 ○ Baztango saioa 9:30 - 11:00 - Kasu praktikoaren bidez fluxugramak aurkeztu eta aztertzea. - Sareko eragile/erakunde bakoitzaren erantzukizunaren definizioa. - Funtsezko galderei erantzutea: zer lantzen da Sarean? zer espero da Sarearengandik? - Kasu baten jarraipen osoa.
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Tokiko edo udalaz gaindiko langileentzako prestakuntza gehienak elkarrekin antolatzen dira Bortzirak, Malerreka-Bertizarana eta Baztanerako, lan-sareak sortzeko, arreta taldeen esku-hartzea eta ezagutza homogeneizatzeko eta tokiko 3 entitateek eskualdean prestakuntzarako bideratzen dituzten baliabide publikoak optimizatzeko.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Aipatu dudana bezala, zerbitzua berria da eta oraindik ez dugu denbora anitz eduki zailtasunak eta hobetzeko arloak identifikatzeko, baina eskualdeko zerbitzuekin informazioa kontrastatu dugunez, toki entitateko langileek eta inguruan dauden gainerako eragileek ez dute parte hartu nahi, batez ere eskualdean dauden segurtasun indar ezberdinetako langileek (eskualdean dauden agenteek). Mugikortasun handia Nafarroako Gobernuaren ardurapean dauden langileen artean (osasunbidea, segurtasun indarretako agenteak, zerbitzu espezializatuetako langileak, etab.).
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Zuzeneko koordinazioa EMUMEekin eta Foruzaingoaren Laguntza Brigadarekin (era berean, eskualdeko erabiltzaileei jarraipen zehatzak edo VioGen jarraipenak egiteaz arduratzen diren eskualdeko agenteekin). • ELJEZrekin jarri gara harremanetan kasu edo lege kontsulta jakinetarako. • GIBOATEkin, HNLTKin eta SIAIZEkin koordinazioa eta harremana kasu zehatzen aurrean. • Osasunbideko zerbitzu psikologikoak koordinatu ditugu eta haietara bideratu ere kasu batzuetan, eta eskualdeko zerbitzu pribatuetara beste kasu batzuetan, oinarritzko gizarte zerbitzuetako larrialdi

	funtsekin edo Estatu Ituneko funtsekin. •
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Genero indarkeriako eta indarkeria matxistako kasuen aurrean erantzun sozial bateratuak eta koordinatuak eman ditugu. GIBOATekin, oinarrizko gizarte zerbitzuekin, polizia espezializatuekin, osasun etxeetako gizarte zerbitzuekin eta Bortzirietako, Malerreka-Bertizaranako eta Baztango berdintasun zerbitzuekin koordinatzen gara, indarkeria matxisten biktima diren eta indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei laguntzeko, eta laguntza psikosozialeko talde egonkor bat antolatu eta abian jartzeko. Hilean 3 saio ibiltari (saio bat eskualde-buru bakoitzean), hilean gai bat eta urritik ekainera arte egutegian sartutako saioak: 2 saio gizarte-hezitzaile espezializatuarekin, eta beste bi saio eskualdeko musikoterapeuta espezializatu batekin. Duela urte batzuk autonomia eta elkarrekiko laguntza, erreparazio zein sustatzerako jarduerak eta taldeak lantzen ari gara. Adingabeentzako garraio eta zaintza zerbitzua eskaintzen dugu, emakumeen parte hartzea zailtzen dituzten oztopoak txikitzeko, sakabanatze geografiko handiko eremu batean lan egiten baitugu. Praktika ona da Malerreka-Bertizarana, Baztan eta Bortzirietako gizarte zerbitzuekin zein berdintasun zerbitzuekin elkarlanean prestakuntza bateratuak antolatzea. Esku-hartzeak eragin handiagoa du, baliabide publikoak hobeki aprobetxatzen dira eta zubiak eraikitzeko eta profesionalen arteko harremanak hobetzeko balio du; horrela, sareko lana, informazioa partekatzea eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzen dira.

INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak 14/2015 Foru Legeak bermatutako zerbitzuetara jotzeko zailtasun handiak, zerbitzu horiek itxaron zerrenda	luzeak dituztelako (gai honek landa eremuetan eragin negatiboagoa izaten du beti, baita sarbide zaileko eremuetan ere. Bereziki eremu horretako emakumeei eragiten die, herritar guztiek zerbitzuak eta eskubideak baldintza berdinetan eskuratzeko duten eskubidea eta askotariko diskriminazioak eskatzen duen arreta berezia urratuz eta haien informazio-, orientazio-, arreta-, babes- eta suspertze-aukerak mugatuz):

	• GIBOATeko edozein arreta psikosozialetarako itxaron zerrenda luzeak (psikologoak, gizarte-hezitzaileak) • SIAIZ ez da laguntza psikologikorako lekuz aldatzen, eta garraio publikoa oso gaizki konektatuta dago gure eskualdean. Kasu horiek GIBOATera bideratzen dira, sexu indarkeria izan arren, eta itxaron zerrenda luzeetan sartzen dira. • ELJEZeko abokatuak ez dira mugitzen, eta doako orientazioa, asistentzia eta lege aholkularitzako saioak telefonoz egiten dituzte. Ezagutu ditugun kasuetan, esku hartu dugun kasuetan, INOIZ EZ dira joan laguntza juridikoa aurrez aurre ematera, salaketa polizialaren aurretik. Hori dela eta, emakumeak bermerik gabeko prozesu judizialetan sartzen dira, ez dute behar bezala informatutako erabakirik hartzen, eta salaketak sinatzen dituzte, kasua baloratzeko garrantzitsua den informazio guztia bertan adierazi gabe. • Polizia bulegoetan jartzen diren salaketetan, nahiz eta oso gomendagarriak diren aurreko lege aholkularitza eta aholkularitza psikologikoak (eta nahitaezkoa da eskaintzea), edo ez dira eskaintzen, edo ez dira egiten, edo ELJEZeko abokatuaren eta emakumearen arteko elkarriketak telefonoz egiten dira, gehienez ere 5 minutukoak. Laguntza psikologikoa gutxitan ematen da salaketa jarri aurretik. Bi zirkunstantzia horiek oztopatu egiten dute edo, behintzat, ez dute errazten emakumeek salaketei buruzko erabaki lasaiak, hausnartuak eta informatuak hartzea. Gainera, ez dute haien eskubideen eta izan ditzaketen zerbitzuen berri, besteak beste, tokiko zerbitzuen berri.
--	--

	Familia elkartzeko guneak Iruñean daude, ez dago elkargune hurbilagorik, eta horrek zaintzak eta bisitak kudeatzeko zailtasunak sortzen ditu. Ezinbestekoa da eskualdean halako elkargune bat izatea. Nafarroako Gobernuak zerbitzuak (GIBOAT, HNLT, GLT, epaitegiak, gizarte zerbitzuen zentroa, etab.) zonakatzearen ondorioz, eremu geografiko hori "Iparraldeko eremua eta Iruñerria" delakoan uztean, zaila da zerbitzuak erabiltzea eta herritarren artean instituzioen utzikariaren sentsazioa sortzen da (emakumeen kontrako indarkeriaren kasuetan anitzetan indarkeria instituzionala eragiten du). Horrekin batera, toki entitateak bertan lan egiten duten eskualdeko profesionalekin ere koordinatzea zaila da, eskualdeari eskaintzen dioten denbora murriztazengatik. Horrez gain, zerbitzua edo arreta euskaraz egitea eskatzea zailtasun gehigarri bat izaten da. "Iparraldeko eremuko eta Iruñerriko" zerbitzuak deszentralizatu egin behar dira, eta iparraldean gizarte zerbitzuetako zentro bat ireki behar da gutxienez, halako eremu zabalarari zuzeneko estaldura emanen diona, eskualdeak behar duen lan guztiaren aurrean desitxuratu egiten delako. Zerbitzu propioak (HNLT; GIBOAT, familia elkartzeko guneak...) izan behar ditu eta aurrez aurre lan egingen duten profesionalak, bulegoak, profesionalak arreta eta prestakuntza emateko espazioak, zaurgarri diren herritar taldeekin lan egitekoak, etab. Udalerriak eta landa eremuei baliabide materialak eta giza baliabideak ematea Nafarroako Gobernuaren betebeharra da, herritarrek beren eskubideak baldintza berdinetan eskura ditzaten, eta iparraldeko eremuari erantzuten saiatzen diren egiturei oso zaila egiten zaie hori lortzea hain baliabide gutxiarekin. Toki erakundeak, eta are gehiago landa eremuetan, aurrez aurre ditugun erronka espezifikoengatik, ez dugu bitarteko nahikorik emakumei merezi duten eta legeak aitortzen dizkieten laguntza eta baliabideak eskaintzeko, eta, guztion artean, bermatu egin beharko genituzke. Gure aldetik dena jartzen dugu arreta onena emateko, baina, anitzetan, kexak jaso eta jaso baino ez ditugu egiten, azkenezinak eta errealitatearekin guztiz bat datozenak.
--	--

	Emakumeei instituzioetara hurbiltzeko dei egiten diegun kanpainak espektatiba batzuk sortzen dizkiete eta, gero, zerbitzuek ez dituzte betetzen eta horrek frustrazioa sortzen die. Horrek emakumeak zerbitzu eta prozesuetatik urruntzen ditu (prozesu judizialak izan ala ez). Prozesu judizialekiko erresistentzia gero eta handiagoa da eta horrek arazoak ekar ditzake, baina ulergarria da, erantzun normala erakundeek edo mugimendu sozial eta feministek eskaintzen diegun errealitateari. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren eta/edo indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei arreta ematen dieten eragileentzako eta erakundeentzako interesgarria izanen litzateke biltzeko aukera ematen duen koordinazio gune bat izatea, gutxienez urtean behin bilduko dena eta kasu jakin batzuk eraman ditzakeena. Horrek oztopoak eta zailtasunak identifikatzen eta horiek prozesuetan duten eragina neurtzen lagunduko liguke. Era berean, oso baliagarria izanen litzateke, Foru Diputazioak indarkeria matxistari ematen dion erantzunean tokiko ikuspegia txertatzeko, tokiko berdintasun zerbitzuek (eta OGZek) ordezkaritza bat izatea Erakunde arteko III. akordioaren jarraipen batzordean, guneetan eta/edo lantaldeetan. Aldi berean, indarkeria matxista pairatu duten emakumeei Foru Diputazioak eta toki erakundeek ematen dieten erantzuna hobetzeko, eta zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko ere, baliagarria izanen litzateke toki entitateetan lan egiten duten berdintasun teknikarien eta Nafarroako Gobernuako departamentuetan lan egiten duten berdintasun teknikarien arteko lan eremu misto bat egotea, besteak beste, 14/2025 Foru Legeko II. Ekintza Planaren urteko plan operatibo estrategikoak eta sektorialak lantzeko, NABlri hainbat gunetan aipatu diogun bezala (14/2025 Foru Legeko II. Ekintza Plana egiteko prozesuan gardentasunean egindako ekarpenetan oinarrituta). GIBOATEk eta SIAIZek giza baliabide eta baliabide material gehiago behar dituzte, ongi prestatuak, lekuz aldatu ahal izateko eta baliabide nahikoak izateko.
--	---

INFORME ANUAL DE SEGUIMIENTO DEL III ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA COORDINACIÓN ANTE LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA 2025

	Gainera, egiten duten lan guztia aitortu beharko litzaieke lan baldintzak hobetzen, haiek hainbestetan eskatu duten bezala. Ez genuke 6 edo 8 hilabeteko itxaron zerrendak egotea normalizatu behar, ezta psikologoarekin saio muga bat egotea ere... Horrekin batera, prozesuen hondarrean gogobetetze inkestak jaso beharko lirateke, eta haiek kontuan hartu eskaintzen diren zerbitzuak hobetzeko. Oro har, baliabide profesional eta material gehiago, prestakuntza gehiago, deszentralizazioa eta emakumeei eta profesionalei entzutea eskatzen dugu. Nafarroako emakumeek jasaten duten indarkeria eta utzikeria instituzionala eskandalagarria da, eta Nafarroako Gobernua kezkatu egin beharko litzateke.
--	--

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Noaingo OGZen Mankomunitatea	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☒Bai ☐Ez - A25 kanpaina ☒Bai ☐Ez - Jaiak ☒Bai ☐Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐Bai ☒Ez - Beste kanpaina batzuk ☒Bai ☐Ez Gaia: Urriaren 15a, Landa eremuko emakumeen eguna
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐Bai ☒Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☒Bai ☐Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☐Bai ☐Ez
Protokoloak	Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☒Bai ☐Ez Sinadura data: 2024ko uztaila

	○ Badago koordinazio mahairik? ☒Bai ☒Ez • Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒Bai ☒Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez • Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒Bai ☒Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez • Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐Bai ☐Ez ○ Badago koordinazio mahairik? ☐Bai ☐Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Oharrak - Mankomunitatean ez dago jazarpenaren protokolorik, baina bat egiteko koordinatu gara bi udalerritan eta aurten beste bitan ari gara lanean
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Hobekuntzak: Biktima diren emakumeei arreta emateko zailtasunak, gure hizkuntza hitz egiten ez dutenean eta beren jatorrizko hizkuntzarako interpreterik aurkitzen ez dugunean. Laguntza interesgarria Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen baliabideetan (Dualia, sercotec...) Adingabeen arretan, haurrei zuzenean eragiten dieten indarkeriazko egoera anitz detektatu dira, zeharkakoagoak edo "ikusezinak". Aurten, profesionalentzat ildo horretako prestakuntza egitea proposatu da
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ezartzeko tresnak. Iraupena: 6 ordu aurrez aurre
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera Elortzibarko (Noaingo) udala - Indarkeria prebenitzeko eta sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ezartzeko prestakuntza. 4 ordu Udaleko langile eta politikarientzat. 28 pertsonak hartu zuten parte (18 emakumek eta 10 gizonek) Mankomunitatea ELZ taldea – ELZko langileentzat autozainketako, ahalduntzeko eta indarkeria prebenitzeko prestakuntza. Iraupena: 6 ordu. 7 partaide, denak emakumeak.

	Mankomunitateko eta eskualdeko langileak (tokiko koordinazio mahaiak proposatuta) – Indarkeria digitala gazteen artean prestakuntza. Iraupena: 2 ordu. 22 pertsonak hartu zuten parte: 19 emakumek eta 3 gizonek Mankomunitateko langileak eta eskualdeko langileak EZ DU BERDINTASUN PROGRAMAK ANTOLATU, baina Mankomunitateak bai (Familia eta adingabeak programa). Haurren kontrako sexu abusuak identifikatzea. Iraupena: 6 ordu
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	Elortzibarko (Noaingo) udalean garatutako prestakuntzan, politikariak interpelatzea, baina ez dute beren burua aipatutzat jo. SADF delakoarentzako prestakuntzan, sakonago aztertu da nola identifikatu emakumeen kontrako edo beren jarduera garatzen duten inguruetako indarkeria
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Adingabeen kontrako indarkeriari heltzeko trebakuntzak garatu ditugu
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak • Lankidetzak proiektuak • Beste batzuk
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA

Azkoien, Martzilla, Funes eta Faltzesko OGZen Mankomunitatea

I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa	- Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak - M8 kanpaina ☐ Bai ☒ Ez - A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez - Jaiak ☐ Bai ☒ Ez - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna ☐ Bai ☒ Ez - Beste kanpaina batzuk ☐ Bai ☒ Ez Gaia:
Ikerketa	- Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? ☐ Bai ☒ Ez - Ikerketaren izenburua eta egilea - Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	OGZMko berdintasun arloa 2025eko azaroaren erdialdean jarri zen martxan, beraz, une hauetan zerbitzua hasten ari da. Denbora eman zuen teknikarien sarearen eta NABlren A25eko kanpainak zabaltzeko. Orain arte, NABlren kanpainen kartelak bakarrik jartzen ziren lau udaletan eta OGZMen.

II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA

Adi	- Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez - Badago aholkularitza psikologikorik? ☐ Bai ☒ Ez
Protokoloak	Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☐ Bai ☒ Ez

	Sinadura data: ☐ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez • Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai (Martzillan eta Azkoienen) ☐ Ez ☐ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez • Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☐ Bai ☐ Ez ☐ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez • Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐ Bai ☒ Ez ☐ Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☐ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	OGZMko Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren diagnostikoa egiten ari gara, lau herrien (errealitate ezberdinak daude eta plan zein protokolo ezberdinak garatu dira) eta, entitate gisa, mankomunitatearen errealitatea erakutsiko diguna. Beraz, zaila da informazio guztia biltzea lehenik zer egingen den aurreikusteko. Dagoeneko lanean ari dira udaletan sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloak egiten hasteko.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
Berdintasun teknikariak emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko VIII. jardunaldiak: Biktimei ahotsa ematen 2025 (6 ordu - Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza) Nesken eta mutilen artean zabaltzen ari diren amildegiak: berdintasuna eta feminismoari buruzko iritziak 2025 (2 ordu - La Sur elkarte)
Toki erakundeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako prestakuntza	Izenburua/Ordu kopurua/Arloa/Partaide kopurua sexuaren arabera
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	

Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	
IV. ARDATZA. ERANTZUN KOORDINATUA	
III. akordioaren esparruko beste erakunde batzuekin koordinatzea	• Lantalde espezifikoak • Lankidetzak proiektuak • Beste batzuk
Ezarritako hobekuntzak, mugarrak eta emaitza aipagarriak	OGZMk indarkeria matxista kasu baten berri duenean, VioGenekin (Guardia Zibilarekin eta Foruzaingoarekin) eta GIBOATEkin (aldizkako bilerak egiten dituzte haiekin) harremanetan jartzen da. Haurren sarearekin ere koordinatuta lan egiten dugu.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	GIBOATEkin koordinazioa arina da, baina lan handia dute eta zailtasunak sortzen ditu horrek. Gainera, ez lau herrietan eta ez mankomunitatean ez dago indarkerian espezializatutako langilerik, hori ere zailtasun bat izan daiteke.

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOAREN 2025EKO JARRAIPEN TXOSTENA	
Taldekatzea: Oltza Zendea, Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Ollaran	
I. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	
Prebentzioa eta sentsibilizazioa	Sentsibilizazio kanpainak eta/edo ekintzak eta talde hartzaileak M8 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez A25 kanpaina ☒ Bai ☐ Ez Jaiak ☒ Bai ☐ Ez Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako eguna Bai ☒ Ez Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguna Bai ☒ Ez Beste kanpaina batzuk ☐ Bai ☐ Ez Gaia: Urriaren 15eko kanpaina
Ikerketa	Egin dira/Lagundu dira emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketak? Bai ☒ Ez Ikerketaren izenburua eta egilea Ikergaia
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Aurten eskualdeko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokolo bat sortzen ari gara. Dokumentu hau bidaltzen dugun honetan, oraindik ez da protokoloa sinatu.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Berdintasun zerbitzuan bildutako udalerriak hartzen dituen eskualdeak oso sakabanatze geografiko heterogeneoa du, eta, beraz, laguntza baliabideei dagokienez, oso sakabanatua da.
II. ARDATZA: DETEKZIOA, BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	
Adi	Badago aholkularitza juridikorik? ☐ Bai ☒ Ez Badago aholkularitza psikologikorik? ☐ Bai ☒ Ez

Protokoloak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio protokoloa ☐ Bai ☒ Ez Sinadura data: - Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez - Aisialdi- eta jai-guneetako sexu erasoentzako protokoloa ☒ Bai ☐ Ez - Badago koordinazio mahairik? ☒ Bai ☐ Ez - Sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ☒ Bai ☐ Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez - Hilketen eta kasu larrien protokoloa ☐ Bai ☒ Ez - Badago koordinazio mahairik? ☐ Bai ☒ Ez
Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak	Orkoiengo berdintasun arloarekin koordinatu gara, laguntza baliabideak partekatzen ditugu-eta.
Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak	Orkoiengo udalaren egungo egoerari dagokionez –gure zonan arreta ematen duten profesionalen kontratazioak haren mende daude–, langileak falta dira, eta arlo horretarako koordinatzen ginen haiekin (berdintasun teknikariarekin), baina oinarritzko gizarte zerbitzuetan, eskola-sustatzaileetan eta abarretan ere langileak falta dira. Profesionalak falta direnez, zaila da haiekin koordinatzea, hartzen duten lan karga ez baita egokia. Prestakuntza falta ere sumatzen da, batez ere osasun arloan, emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez.
III. ARDATZA. PRESTAKUNTZA	
